



## AIZKORA

### JOKOAREN OINARRIA

Joko hau, neurri zehaztutako enborrak, aizkora bidez, ahalik eta lasterren ebakitzean datza.

### EGURRAREN EZAUGARRIAK

1.art.- Ez bada aurrez esaten bestelako zuhaitz-enborrak erabiliko direla, enborrak pago-enborrak izango dira, eta plazara azal eta guzti ekarriko dira, hau posible den kasuetan. Enborrok azalik ez izatea ere ontzat hartuko da, azal hori mendian, enborrak tarrasean eraman izateagatik edo garraio-lanengatik galdu bada. Enborrek begirik, pitzadurarik, akatsik edo okerrik badute, neurri egokia ematerakoan desagertu egin beharko dira begi, pitzadura akats edo okerrok.

2.art.- Enborrak ateratzeko ebaki diren zuhaitzok, berriki ebakiak beharko dute izan. Beraz, enborrak berriak izan beharko dira, berdeak.

3.art.- Gerribuelteri dagokionez, beharrezkoa izango da enborrak kanpotik neurtzea, behin zati obalatuak, akatsak edo okerrak zuzendu ondoren, dagokien neurrian gelditu daitezten.

4.art.- Enborren luzera eta gerribuelta, behin enborrak jarri ondoren, honako koadro honen arabera izango dira:

Enborren gerribuelta:		Gutxienezko neurriak:	
Ontzatan:	Metrotan:	Bi ebaketarako:	Ebaketa bakarrerako:
36"	0,835	0,80 m.	0,50 m.
45"	1,043	0,90 m.	0,55 m.
54"	1,252	0,90 m.	0,60 m.
60"	1,391	1,00 m.	0,60 m.
72"	1,669	1,10 m.	0,70 m.
80"	1,855	1,20 m.	0,80 m.
108"	2,504		

5.art.- Enborrak doitzean, beharko luketena baino txikiago geldituko balira, gerribueltan zentimetro 1 edo 2 gutxiago dutela, ontzat emango dira, beti ere enbor-multzo bereko beste batzuek (txikiago gelditu diren enborren kopuru bera), sobera badute hauei falta zaiena.

6.art.- Enborrak, jokaldia hasteko iragarritako ordua baino 24 ordu arinago egongo dira Federazioaren eta kirolarien esku.

Federazioak esango du, bertara azaltzean, enborrak egokiak diren edo atzera bota behar diren. Atzera bota behar izanez gero, interesatuek enbor berriak ekarri beharko dituzte atzera botatakoen ordez, gehienez ere 6 orduko epean, une horretatik hasita.

Enborrak bere lekuan jarri eta federazioko agintariak oniritzia eman ondoren, antolatzaileek zaindu beharko dituzte enborrak proba hasi arte.

7.art.- Egurra ohi bezala ekarri beharko da plazara. Esan nahi baita, zuhaitzak ebaki ondoren ezin izango zaie enborrei era artifizialean beroa, hotza, likidoak, eta abar... eman, enborrok gogortzeko edo biguntzeko. Enborrok ipurdian marka ezabaezin bat izango dute.

8.art.- Behin enborrak aurkeztu eta onartu ondoren (hau guztia, lana alde guztientzat ahalik eta parekatuen gelditzeko egiten da), aldeetako bakoitzak bere enborren erdia eskainiko dio beste aldeari. Zein enbor eman, emaleak erabakiko du, eta neurria ematerakoan, enborrotatik zati obalatuak kendu egingo dira, eta gerribuelta proportzioan murriztuko zaio, ahalik eta zilindrikoen eta aurrez hitzartutako neurrietan gera daitezten.

Enborrak gehiegi obalatzera saihesteko, gerribueltan %6ko tolerantzia emango da, bai beherantz, bai gorantz. Ondorioz, enborraren edozein gerribuelta ondoko neurrietan sartu beharko da:

Onarturiko tolerantzia				
Enborren neurria:	Gerribuelta zehatza:	Gutxienezko gerribuelta:	Gehienezko gerribuelta:	Diferentzia:
36"	26,6	25,0	28,2	3,2
45"	33,2	31,2	35,2	4,0
54"	39,8	37,4	42,2	4,8
60"	44,3	41,6	47,0	5,4
72"	53,1	49,9	56,3	6,4
80"	59,0	55,4	62,6	7,2
108"	79,7	74,9	84,5	9,6

## **ENBORRAK NOLA JARRI**

### **Etzanda daudela**

9.art.- Behin enborrei dagokien neurria eman ondoren, 8-12 zentimetroko altuera izango duten langeten gainean jarriko dira, alde bakoitzak aurkezturiko enborrak txandakatuz. Horrela, lehenbiziko enborra A aizkolariarena bada, bigarrena B aizkolariarena izango da, eta abar,...

10.art.- Bi ebaketa egingo diren enborretan hiru langet erabiliko dira, eta langetotako bat enborren erdi-erdian jarriko da. Ebaketa bakarra egiteko prestatutako enborrak, bi langeten gainean jarriko dira.

Bi ebaketa egingo diren enborretan, enbor bakoitzaren erdia ikusteko moduan markatuko da, aizkolari bakoitzak ebaketa bestearen aldera pasatu gabe egin dezan.

Zutik daudela (australiar era)

11.art.- Lehiaketa eta txapelketetan, enborrak ebaketa bakarra emateko eran jarriko dira. Ipurdiaren goiko aldea, ebakitze orduan, lurretik 0,70 metrotara egon beharko da. Desafioetan, enborrak bakoitzari bi ebaketa egiteko eran (ebaketa bana aizkolari) jarri ahal izango dira. Kasu honetan, ipurdiaren goiko aldea lurretik 0,60 metrotara egongo da.

12.art.- Desafioetan, aurkariak bakoitzak ebaketa bakarra egiteko eran jarri nahi badituzte enborrak, 4. artikuluan, ebaketa bakarreko enborrentzat ezarritako luzeraren bikoitza duten enborrak ekarri beharko dituzte eta ipurdian marka ezabaezina egin beharko diote. Beraz, 45 ontzetako enborrek 1,10 metrotako luzera izango dute; kana erdikoek 1,20 metro; eta abar... Enborrok erditik ebakiko dira, eta ongi jartzeko beharrezkoa den luzera izango dute.

### **DESAFIOAK:**

13.art.- Desafioetan ahaleginak egingo dira aurkariak enbor berak ebaki ditzaten. 4. artikuluan adierazitako neurriak izan beharko dituzte gutxienez.

14.art.- Apustuetan, bi lerro berdinetan enbor kopuru bera, gerribuelta berdinekoa jarriko da, ahal den guztietan. Lerro bakoitzean aizkolari bakoitzaren enbor kopuru bera jartzen ahalegindu beharko dugu, aizkolari bakoitzaren enborrak tartekatuz, 9. artikuluan aipatu bezala.

Enbor guztien ipurdiak alde berdinerara jarriko dira. Bi lerroak paraleloan jartzen badira, ipurdiak kanpo aldera egongo dira.

15.art.- Jokaldia hasi aurretik, zozketa egingo da. Irabazleak lerroa hautatuko du, eta ipurditik zein beste aldetik has daiteke.

16.art.- Desafioetan, aizkolariak, dagokien lerroko enborrak nahi bezala ebaki ditzakete. Hala, lerro horretan, berak nahi duen enborretik hasi ahal izango da. Gero, lerro berdineko beste edozein enbor ebaki ahal izango du. Hori bai, behin enbor bat ebakitzen hasiz gero, beste enbor batera pasatu aurretik, derrigorrez bukatu beharko du. Era berean, bigarren lerroa pasa aurretik, lehenbiziko lerrokoak bukatu beharko ditu.

### **TXAPELKETAK ETA LEHIAKETAK**

17.art.- Hiru aizkolari edo gehiagok parte hartzen duten lehiaketa eta txapelketetan, enborrak bakoitzari ebaketa bakarra egiteko eran jarriko dira.

18.art.- Behin enborrak neurri zuzenetan doituz gero, perituek enborrak banatu eta enbor-multzoak egingo dituzte, multzook beren artean ahalik eta antzekoen izan daitezen saiatuz.

19.art.- Lehiaketa hasi baino 30 minutu lehenago, zozketa egingo da. Enbor-multzoei, zozketarako zenbakia jarriko zaie. Parte hartzaile bakoitzari, zozketan egokituko zaion zenbakiari dagokion enbor-multzoa egokituko zaio.

20.art.- Lehiaketa eta txapelketetan, enborrak presidentziari hurbilen zaion aldetik hasi beharko dira ebakitzen. Ebaketa presidentziari begira hastera gonbidatuak izango dira aizkolariak. Aizkolariak enborrak jarri diren ordenaren arabera ebaki beharko dituzte. Beraz, lehiaketetan, ezin izango dira hasi, kasu, hirugarren enborretik, eta ezin izango dira pasatu lehenbizikotik laugarrenera, eta abar... Beraz, lehiaketa eta txapelketetan aizkolariak enborrak orden berdina jarraituz ebakiko dituzte.

### **ERAKUSLE ETA LAGUNTZAILEAK**

21.art.- Kontratuetako klausulek eta lehiaketetako araudiek hala adierazten badute, aizkolariak erakusle eta laguntzaileen laguntza izan dezakete. Ez ordea aizkolariak laguntzaile bat eta erakusle bat baino gehiago.

22.art.- Erakusleak aizkolariari honek aizkorakada non eman behar duen esan diezaioke. Horretarako erakusleek makila bat erabil dezakete, baina ez ezpalak kentzeko.

23.art.- Laguntzailearen lana aizkolariari aizkorak, eskuoihalak, edariak, eta abar... eskura jartzean datza.

24.art.- Ez laguntzaileak, ez erakusleak ezin diote aizkolariari enborretara igotzen lagundu, ezta enbor gainean mantentzen ere. Arau honi kasurik egiten ez badiote, epaileak kargu hartuko die, eta berriz ere ez badiote kasurik egiten, lehiaketatik kanpo gelditu daitezke.

25.art.- Enbor gainera igotzeko, aizkolariek ezingo dute aulkirik erabili. Hala nahi badute, aizkora sar dezakete enborrean, edo enborrari koska bat kendu, errazago igo ahal izateko enbor gainera. Lanok behin lehiaketa hasita egin beharko dira.

26.art.- Jokaldiak iraun bitartean aizkora enborrean sartua gelditzen bazaio aizkolariari, ezin izango du beste inoren laguntza erabili aizkora askatzeko.

## **XEHETASUN TEKNIKOAK**

27.art.- Enbor bat, erdibitu denean eta ohiko hotsa egin duenean, ebakia dagoela ulertzen dugu. Hala ere, enborrak langet gainean ezarriak daudenez, inoiz gertatzen da ezin jakitea enborra ebakia dagoen ala ez. Honegatik, epaileek, langetak banatu bezain laster ekingo diote enborrak berrikusteari, eta beste kolperen bat edo batzuk beharrezkoak direla irizten badiote, aizkolariari berriz ere enbor horretara jotzeko eskatuko diote, enborra guztiz ebakitzeko.

28.art.- Aizkolaria enborra alde batetik ebakitzen hasten denez, maiz, aizkorakadaren ondorioz, edo egur-izpien ondorioz, enborraren kanpoaldean ezpalak askatzen dira, eta hau aizkolariaren onerako da. Halako kasuetan, epaileek aizkoraren ahoaren beste aldearekin, ebakitzeko erabiltzen ari ez den aldean kolpe batzuk ematera behartuko du aizkolaria. Kolpe bakoitzean gainera, aizkora buruaren parera altxatu beharko du. Zenbat kolpe eman beharko dituen, epaileek erabakiko dute, askatu den ezpalaren tamainaren arabera.

Aizkolaria ezpala nahita askatu badu, zigorra gogorragoa izango da.

## **EUSKADIKO TXAPELKETETARAKO MAILAKETA ETA ARAUDIA**

Aizkolaria lau sailetan (hiru maila eta gazteak) sailkatuko dira:

1. Maila: gehienez ere 12 aizkolarik osatuko dute.

2. Maila: gehienez ere 14 aizkolarik osatuko dute.

3. Maila: gainontzeko aizkolaria.

Gazteak: 18 urte arteko aizkolaria, urteak urte horretan bete dituztenak.

Gazteek ezin izango dute beste maila batean parte hartu. Hala ere, maila horretan bi urtez segidan txapelkun izan denak parte hartu ahal izango du 3. mailan, berak hala nahi baldin badu.

### **Lehenbiziko maila:**

Finalean, kanporaketan sailkatutako 6 onenek hartuko dute parte.

Lehenbiziko mailara igoko dira, bigarren mailako finaleko lehenbiziko eta bigarren sailkatuak. Bigarren mailara jaitsiko dira, lehenbiziko mailako kanporaketan azken eta azkenurreko gelditu direnak.

### **Egin beharreko lana:**

Kanporaketan: 54"ko 2 enbor

60"ko 2 enbor

72"ko 2 enbor

Finalean: 54"ko 4 enbor

60"ko 4 enbor

72"ko 4 enbor

Bai kanporaketan, bai finalean, enborrak pago-egurra izango dira.

### **Bigarren maila:**

Kanporaketetan sailkatutako 6 onenek hartuko dute parte finalean.

Bigarren mailara, hirugarren mailako Finaleko lehenbiziko eta bigarren sailkatuak igoko dira.

Hirugarrenera, bigarren mailako kanporaketan azken eta azkenurreko sailkatuak jaitsiko dira.

### **Egin beharreko lana:**

Kanporaketan: 54"ko 3 enbor

60"ko enbor 1

72"ko enbor 1

Finalean: 54"ko 2 enbor

60"ko 2 enbor

72"ko 2 enbor

Bai kanporaketan bai finalean, enborrak pago-egurra izango dira.

**Hirugarren maila:**

Finalean, kanporaketan sailkatuetako 6 onenek hartuko dute parte.

**Egin beharreko lana:**

Kanporaketan: 54"ko 4 enbor

Finalean: 54"ko 3 enbor

60"ko 2 enbor

Kanporaketan, enborrak pinu-egurra izango dira; finalean, pago-egurra.

**Gazteak:**

Ez da kanporaketarik egingo.

**Egin beharreko lana:** 45"ko 4 enbor

54"ko bi enbor

Enborrak pago-egurra izango dira.

2. eta 3. mailetan, kanporaketetarako hitzartuak dauden dietak jasotzeko, aizkolariak ezin izango du irabazleak erabili duen denbora baino %50 gehiago erabili lana bukatzeko.

**Parte hartzea:** Aizkolari guztiek hartu beharko dute parte. Baten batek ez badu hartzen, gaixo dagoelako edo lesioaren bat duelako, medikuaren egiaztatzea aurkeztu beharko du eta urte horretan maila berean arituko da lanean. Bi urtetan jarraian, edo bestela, hiru urte tartekatuetan ez balitz aurkeztuko, mailaz jaitsiko litzateke.

Aizkolari batek Euskadiko txapelketa baten parte ez hartzeko egiaztatzea gisa osasun-ziurtagiri bat aurkezten duenean, aizkolari horrek ezin izango du parte hartu beste froga baten (txapelketa, erakustaldi, apostu e.a....) 15 egunetan, delako txapelketa ospatzen den egunetik aurrera zenbatuz.

Kontrol gabeko frogan kasuan (adibidez: erakustaldiak, epaile eta akta gabekoak) Federazioak antolatzaileei aritutako kirolarien zerrenda (idatziz) eskatuko die eta kasua Disziplina Batzordera eramango da.

Osasun-ziurtagiriak, gutxienez txapelketaren eguna baino hiru egun arinago aurkeztu beharko dira. Kirolaria iraupen luzeko lesio larri bat jasaten ari bada, osasun-ziurtagiria lehenbailehen aurkeztuko du.

**Jaitsiera Kanporaketa:** kanporaketa bateko azken sailkatua, edo, azkena eta azkenaurrekoa mailaz jaitsi behar dutenean, aizkolari batek edo batzuk, gaixotasun edo lesioen ondorioz osasun-ziurtagiria aurkeztu dutelako:

1.- Baldintza hauetan mailaz jaitsi behar duen aizkolari batek, bere maila mantentzeko ahalegina egiteko eskubidea edukiko du, "Jaitsiera Kanporaketa" bat egitea eskatuz Euskadiko Federazioari.

Eskaera, txapelketa izan den egunetik zenbatu beharreko 15 egunetako epearen barruan aurkeztu beharko da.

2.- Behin eskaera jasoz gero, "Jaitsiera Kanporaketan" parte hartzea behartuta egongo dira osasun-ziurtagiria aurkeztu duten aizkolariak eta/edo zigortuta egoteagatik delako Euskadiko txapelketan parte hartu ezin izan duten aizkolariak.

3.- "Jaitsiera Kanporaketan" parte hartzea behartuta dagoen aizkolari batek uko egiten badio, automatikoki mailaz jaitsiko da.

4.- "Jaitsiera Kanporaketa", txapelketa izan den egunetik zenbatu beharreko 8 hilabeteko gehienezko epearen barruan egingo da. (Gaixorik edo minduta dauden aizkolariak sendatzeko 6 hilabetetako gehienezko epea, beste 2 hilabetetan "Jaitsiera Kanporaketa" egin beharko da).

5.- Euskadiko txapelketa baten parte ez hartzeko osasun-ziurtagiria aurkeztu duen aizkolariak, gaixo edo minduta jarraitzen duen artean, hileroko bidali beharko du Euskadiko Federazioa osasun-ziurtagiri original berri bat.

Euskadiko txapelketa baten parte ez hartzeko osasun-ziurtagiria aurkeztu duen aizkolariak kirol-bajaz dagoela ulertzen da. Hori dela eta, gaixo edo minduta jarraitzen duen artean ezin izango du erakustaldietan parte hartu. Egin duela frogatzen bada, automatikoki mailaz jaitsiko da.

Euskadiko Federazioak aizkolari bat sendatu dela ulertuko du hileroko osasun-ziurtagiria jasotzen ez denean.

6.- Euskadiko Federazioak jarriko du "Jaitsiera Kanporaketa" egiteko eguna.

7.- Euskadiko Federazioak jarriko du "Jaitsiera Kanporaketan" ebakitzeko egurra.

8.- "Jaitsiera Kanporaketan" parte hartzen duten aizkolariak ez dute ezer kobratuko.

## TRONTZA

### JOKOAREN OINARRIA

Joko honetan, neurri zehatzetako enborrak trontza bidez ahalik eta lasterren ebaki behar dira.

### EGURRAREN EZAUGARRIAK

1.art.- Ez bada aurrez esaten bestelako zuhaitz-enborrak erabiliko direla, enborrak pago-enborrak izango dira, eta jokalekura azal eta guzti ekarriko dira, hau posible den kasuetan. Enborrok azalik ez izatea ere ontzat hartuko da, azal hori mendian, enborrak tarrasean eraman izateagatik galdu bada, edo garraio-lanak direla medio. Enborrek begirik, pitzadurarik, akats edo okerrik badute, neurri egokia ematerakoan joan egin beharko dira.

2.art.- Enborrak ateratzeko ebaki diren zuhaitzok, berriki ebakiak beharko dute izan. Beraz, enborrak berriak izan beharko dira, berdeak.

3.art.- Enborren kanpoko neurriak, gerribuelteri dagokionez, beharrezkoak izango dira, behin zati obalatuak, akatsak edo okerrak zuzendu ondoren, dagokien neurrian gelditu daitezten.

4.art.- Enborren luzera eta gerribuelta, behin enborrak jarri ondoren, honako koadro honen arabera izango dira:

Enborren gerribuelta:	
Ontzatan:	Metrotan:
36"	0,835
45"	1,043
54"	1,252
60"	1,391
72"	1,669
80"	1,855
108"	2,504

Enborren luzera: 60 zentimetrotakoak izango dira, bai etzanda daudela, bai zutik

Enborrak gehiegi obalatzeari saihesteko, gerribueltan %6ko tolerantzia emango da, bai beherantz, bai gorantz. Ondorioz, enborren edozein gerribuelta ondoko neurrietan sartu beharko da:

Onarturiko tolerantzia				
Enborren neurria:	Gerribuelta zehatza:	Gutxienezko gerribuelta:	Gehienezko gerribuelta:	Diferentzia:
36"	26,6	25,0	28,2	3,2
45"	33,2	31,2	35,2	4,0
54"	39,8	37,4	42,2	4,8
60"	44,3	41,6	47,0	5,4
72"	53,1	49,9	56,3	6,4
80"	59,0	55,4	62,6	7,2
108"	79,7	74,9	84,5	9,6

5.art.- Enborrak doitzean, beharko luketena baino txikiago geldituko balira, enborrak gerribueltan zentimetro 1 edo 2 gutxiago dutela, ontzat emango dira, beti ere enbor-multzo bereko beste batzuek (txikiago gelditu diren enborren kopuru bera), sobera badute hauei falta zaiena.

Enborrak prestatzen direnean, hauek leun eta ezpal askerik gabe utziko dira.

6.art.- Proba hasteko iragarritako ordua baino 24 ordu arinago, enborrak Federazioaren eta kirolarien esku egongo dira.

Federazioak esango du, bertara azaltzean, enborrak egokiak diren edo atzera bota behar diren. Atzera bota behar izanez gero, interesatuek enbor berriak ekarri beharko dituzte atzera botatakoen ordean, gehienez ere 6 orduko epean, une horretatik hasita.

Enborrak bere lekuan jarrita daudela eta federazioko agintariak bere oniritzia eman ondoren, antolatzaileek zaindu beharko dituzte enborrak proba hasi arte.

7.art.- Egurra ohi bezala ekarri beharko da plazara. Esan nahi baita, zuhaitzak ebaki ondoren ezin izango zaie enborrei era artifizialean beroa, hotza, likidoak, eta abar... eman, enborrok gogortzeko edo biguntzeko. Enborrok ipurdian marka ezabaezin bat izango dute.

### ENBORRAK NOLA JARRI BEHAR DIREN EUSKADIKO TXAPELKETETAN

8.art.- Etzanda dauden enborrak neurri jakin batean ebaki beharko dira. Zutik daudenak, bitan.

A) Lurraren eta enborren azpiko aldearen arteko distantzia etzandakoan eta gehienezko altuera zutikako ebaketan libreak izango dira.

B) Enborra zutik dagoela: 15 zentimetrotako ebakitze-tolerantzia izango du, eta 5 zentimetro sobera enborren goiko aldetik.

C) Bai etzandako ebaketan, bai zutikakoan, ebaketen arteko distantzia 2,5 zentimetrotakoa izango da gehienez.

Ebaketan, goiko aldetik pasatzen bada, baliogabekoa izango da ebaketa hori. Bere multzoari ez dagokion beheko aldean ebakitzen hasten bada, lehiaketatik kanpo geldituko da.

Ebakitako zatia gerri buelta osokoa bada, baliokoa dela ulertuko dugu.

Ebakitzen ari diren bitartean, gurpila apurtzen bada, gerri buelta osokoa atereaz gero, baliokoa dela ulertuko dugu.

## **EUSKADIKO TXAPELKETAK**

### **9.art.- Gizonezkoen txapelketa hiru zatitan egingo da:**

\* Izena ematen duten bikote guztiekin SAILKAPEN PROBA (urtero egingo da)

\* Sailkapen probako lehen sei bikoteekin, "LEHEN MAILAKO FINALA"

Lehen mailako finalean, sei bikoteak batera ebakiko dute.

\* Sailkapen probako gainontzeko bikoteekin "2. MAILAKO FINALA"

Txapelketaren zati guztietan, mota guztietako trontzak erabili ahal izango dira

### **Egin beharreko lana eta segida, honako hauek izango dira:**

\* **Sailkapen proba:** 45 ontzako, goitik beherako 5 ebaketa (enborra etzanda dagoela)

45 ontzako, ezkerretik eskuinerako 5 ebaketa (enborra zutik dagoela)

45 ontzako, goitik beherako 5 ebaketa (enborra etzanda dagoela)

\* **Lehen mailako Finala:** 60 ontzako, goitik beherako 5 ebaketa (enborra etzanda dagoela)

(gaur egungoa) 54 ontzako, ezkerretik eskuinerako 6 ebaketa (enborra zutik dagoela)

54 ontzako, goitik beherako 6 ebaketa (enborra etzanda dagoela)

60 ontzako, goitik beherako 5 ebaketa (enborra etzanda dagoela)

\* **2. mailako Finala:** Sailkapen probako lan bera

10.art.- Kirolari bakoitzak bere astoa eramango du eta plazan, Epailearen aurrean aurkeztu beharko du jokaldia hasi baino ordu bete arinago.

11.art.- Emakumezkoen txapelketetak: izen-emate librea eta 45 ontzako 10 ebaketa egin beharko dira.

## **HARRI JASOTZEA**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Lagun batek, bere indarrez baliatuz, eta inolako lanabes edo mekanismorik erabili gabe, harri bat jasoko du, lastratua zein ez, lurretik sorbaldaraino, lurretiko horizontaltasuna lortu arte, kontutan izanik harriaren pisua eta ezaugarriak baita ekitaldiak ere.

### **HARRIAREN EZAUGARRIAK**

1.art.- Erabilitako materiala harri naturala izango da, harrobi edo haitz beretik ateratakoa.

2.art.- Ez da onartuko ageriko material arrotzik harrian, ezta ere harrobi edo haitz beretik ez datozen bi harri, kolarekin zein beste eraren bat erabiliz itsatsiak.

3.art.- Harri zatiren bat hautsiz gero, kola bidez itsatsi ahal izango da, baina baldintza batekin: Itsatsitako harria kalitate eta pisu espezifiko berekoa izan dadila.

Era berean, harriak arrakalaren bat izanez gero, ez hausteko harginak jartzen dion ziria edo barratxo onartuko da. Ziriek edo barratxoek ez dute kilo eta erdi baino gehiago izango.

Salbuespen hauek onartzen dira, adibidez, harri zati bat hautsi eta kolaz itsatsiz gero, 1. Artikuluan zehazten den oinarritzko baldintza aldatzen ez delako.

4.art.-

a) Harri zaharrak, zilindro eta laukizuzen egiturakoak, ezin izango dira lastratu.

b) Harri berriak, direla zilindrikoak, esferikoak, kubikoak, edo laukizuzenak, lastratu ahal izango dira, berezkoa duten materiala ez den beste batekin. Lehiaketetan zein probetan ez da onartua izango bestelako materialezko inkrustazio nabariak dituen harria, nahiz eta egituraz arauzkoa izan.

c) Marka berria egiteko erabiliko den harri berri oro, lastratua dela ulertuko dugu, eta hala jasoko da idatziz aktan. Marka jakin hori egin nahi duenak esaten badu harri-puskak ez duela bestelako material erantsirik salbu. Horrela gertatuz gero, Euskadiko Herri Kirol Federakuntzak, homogeneotasuna ziurtatzeko aukerako bitartekoak erabiltzea beretzat gordetzen du, eta Epaileak, harria prezintatu dezake behar bezala egiaztatu arte.

5.art.- Harriek honako irudi geometrikoren bat izan beharko dute:

a) Kubikoa: Kubo edo hexaedro irudia. Sei aldeak karratuak izango dira eta neurri berekoak. Ez du heldulekurik.

b) Esferikoa: izenak esan bezala, harrizko bola. Ez du heldulekurik.

c) Betiko harri laukizuzena: prisma erregularreko harria, paralelogramoa. Lau alde luzeenak laukizuzenak dira. Oinarria eta honen kontrako aldea karratuak dira. Baditu bi zulo edo helduleku eta goiko aldean atzamarrentzat bi leku, bloke bertan eginak. Zulo hauen bolumena guztira ezingo da 1,5 dm<sup>3</sup> baino handiagoa izan (1,5 litro ur).

d) Laukizuzen berria: Betiko harritik duen diferentzia da ez duela zuloentzat edo heldulekuentzat bolumenean mugarik. Harria edozein aldetatik arindu genezake, kontrako oinarriko ertzak perimetro guztian ukitu gabe badaude.

Barneko goiko erpinak (kirolariaren izterrak ukitzen dituztenak) zentimetro bat arte higatu ahal izango dira. Neurri hori erpinetik hasi eta egindako higaduraraino neurtuko da (eskuairaren bidez).

Ezkerreko eta eskuineko paralelogramoak barnealdeko ertzetan (kirolariaren izterrak ukitzen dituztenak) aldatu ahal izango dira, goiko eta beheko karratuak aldatzen ez badira. Aldaketa hori, harriaren goiko erdialdean kokatuko da, hamar zentimetro arteko ertz ebakitze luzeraz eta bi zentimetroko gehienezko sakontasunez.

Harrien heldulekuek ezkerreko eta eskuineko paralelogramoen ertzak ebaki ahal izango dituzte.

Esku batekin altxatzeko, aurrealdeko paralelogramoan beste helduleku bat jarri ahal izango da, baita harriaren oinarrian ere, ertzei eragin gabe.

e) Betiko zilindrikoa: harrizko zilindroa da. Baditu bi zulo edo helduleku eta goiko aldean atzamarrentzat bi leku, bloke bertan eginak. Baina zuloen bolumena guztira ezingo da 1,5 dm<sup>3</sup> baino handiagoa izan (1,5 litro ur).

f) Harri zilindriko berria: Betiko harritik duen diferentzia, ez duela zuloentzat edo heldulekuentzat bolumenean mugarik eta harria edozein aldetatik arindu genezakela. Esku batekin altxatzeko, aurrealdean beste helduleku bat jarri ahal izango da, baita oinarrian ere.

Harri berrietan (zilindrikoa izan edo laukizuzena izan), oinarrian bestelako harri kalitatezko tapa bat jartzea edo aldatzea onartuko da, gehienez hiru zentimetrotakoa.

## **HARRIEN NEURRIAK**

6.art.- Harri laukizuzenen eta zilindrikoen altuera 24 eta 32 hazbete artekoa izango da, hots, 55,66 zentimetrotik 74,21 zentimetrotara.

Lehenago egindako errekorrak hausteko, jatorrizko errekorra egiteko erabilitako neurri berdinetako harriak erabiliko dira.

7.art.- Harri kubikoen eta laukizuzenen alboetako neurriek, 0,5 zentimetrotako tolerantzia izan dezakete alde batetik bestera.

## **HARRIAK PISATZEKO ETA PROBATZEKO PROZEDURA**

8.art.- Federazioek kontrolaturiko Harri-jasotze lehiaketa guztietan harriak eta kirolariak pisatu egingo dira. Pisaketaren ardura federazioarena edo bere ordezkariena izango da.

Normalean, harriak proba hasi baino ordu bete arinago pisatuko dira. Pisatzeko tresna nahi duten zaletu guztien aurrean frogatuko da, eta harria ere nahi duten guztien aurrean pisatuko da.

9.art.- 100 kiloko edo gehiagoko harrietan, onarturiko tolerantzia 0,500 kg baino txikiagoa izango da.

Honek ez du esan nahi 100 kilo pisatu dituen harria 9,500 kilotara jaitsi daitekeenik. Esan nahi duena da, pisatzeko tresna frogatu ondoren, 99,750 kilo baditu, kasu, 100 kiloko harria dela ulertuko dugula, pisatzeko tresnak berak izan dezakeen balizko akatsa zuzentze aldera.

Harria pisatu ondoren, pisu handiagoa balu, ezarritako pisura arte jaitsi ahal izango dugu harria.

10.art.- Harriak adierazitako pisua baino txikiagoa balu, adierazitako tolerantzia kontuan hartuz, ezin izango litzateke proba baldintza horietan burutu eta ondorioz, interesduna aurrez jarritako baldintzak betetzen dituen harri bat aurkeztera behartuta egongo da. Horretarako, eta berebiziko kasuetan, harriari kolaz erantsi ahal izango zaizkio beharrezko gramoak, harriak aurrez jarritako pisua bete arte.

11.art.- Harria behar bezala aurkeztu ezean, harria daukanak proba galdu duela ulertuko dugu.

12.art.- Aurrez jarritako baldintzak betetzen badituzte, parte hartzaileek nahi adina harri aurkez ditzakete eta Epaileak baliozkotzat joz gero jasotzaileak nahi duena erabil dezake.

Ekitaldi berdinean harria aldatuz gero, harri-jasotzaileak, laguntzaileak eta ordua ematearen ardura duenak lagunduta, harri berria taula gainean jarri beharko dute. Halakoetan, Epaileak ez die denbora tarterik eskainiko langintza hauetarako eta beraz, denborak aurrera egingo du, deus gertatu ez balitz bezala.

13.art.- 500 gramoz goitiko harri zatia hautsiz gero eta jasotzaileak ez badu behar diren baldintzak betetzen dituen ordezkariarik, ezin izango du parte hartzen jarraitu eta aurkakoak berak baino jasoaldi gehiago egiten baditu proba galduko du.

14.art.- Parte hartzaile bati harri hausten bazaio, beste parte hartzaile baten harria erabil dezake, pisatzeko orduan, eta Epailearen aurrean, akordio batera iritsi badira.

15.art.- Harri-jasotze proba bukatu ondoren, Epaileak, harrien lastratzeari buruzko edozein erreklamazio balego, 4. artikuluan aipaturikoaren arabera jokatu du.

16.art.- Harri-jasotze proba bukatu ondoren, eta berdinketa badago, irabazlea pisu gutxieneko kirolaria izango da, eta pisu berdinketa badago, irabazlea lehenengo aritu dena izango da.

## **MATERIAL OSAGARRIA**

17.art.- Erretxina –hautsean edo harrian- eta kola, harrian, eskuetan, besoetan eta harri-jasotzailearen arropetan ere erabil daitezke.

18.art.- Laguntzaileak harri-jasotzaileari ura, fruta, eskuoihala, eta abar... jarri ahal dizkio eskura. Haizea ere eman diezaioke, bai lanean ari dela, bai atsedendaldietan.

Harri-jasotzaileak beste laguntzaile bat ere izan dezake, ordua ematearen ardura izango duena. Honek denboraren berri emango dio, harri-jasotzaileak erritmo bera eraman dezan eta ahalik eta errendimendu handiena eskura dezan. Era berean, eta hala nahi izanez gero, laguntzaile lanak ere egin ditzake, harri-jasotzaileak lanari etekin hobea atera diezaiola, baita segurtasun handiagoa ere.

19.art.- Lehiaketarako edo probarako baldintzak ezartzen direnean, argi utziko da ekitaldi bakoitzak zenbat iraungo duen, baita ekitaldien arteko atsedendaldiak ere.

20.art.- Ez bada kontrakoa adierazten, ekitaldietan harri-jasotzaileak txandakatu egingo dira. Hots, aurrez zozketa egin ondoren, lehenengo aurkarietako bat arituko da, eta atsedendaldiaren ondoren, aurkakoak egingo du bere lehenengo ekitaldia. Berriz ere lehenengo arituko da bere bigarren ekitaldia eginaz eta horrela behin da berriz.

21.art.- Zozketa harriak pisatu ondoren burutuko da. Zozketan asmatzen duenak, aukera izango du bietako zein aurkari hasiko den erabakitzeko. Normalean, zozketa txanpon bat airera boteaz egingo da, “zuri ala beltz” sistema erabiliz.



22.art.-

- a) Harri-jasotzaileak, bere berezko baliabideak erabiliz, harria taulatutik sorbaldaraino jasoko du. Taulatua sestran egon beharko da eta lau, hots, zulo edo jangunerik gabe.
- b) Jasoaldia harri-jasotzailearen aurreko aldetik egin beharko da, eta honek egoki irizten dion arropa erabili ahal izango du.
- c) Harri-jasotzaileak, bere kasa, harria sorbalda gainean jarri beharko du, harriaren beheko ertzaren edo punturik baxuenaren horizontaltasuna lortuz, gutxienez.
- d) Ez da baliozkotzat joko beheko ertzaren horizontaltasuna lortzen duen jasoaldia, harria sorbalda gainean dominatu gabe erortzen bada, harri-jasotzailearen ohiko posizioa lortu gabe.
- e) Harria, hondar-zakuen gainean, edo bestelako sistema indargetzailearen baten gainean bota beharko du harri-jasotzaileak, nahi eta nahi ez. Zaku edo sistema hau, taulatuaren aurreko aldean kokatuko da.
- f) Harria, harri-jasotzailearen sorbaldaren aurreko aldetik atera behar da. Ez da baliozkotzat joko harria alde batera edo atzeko aldera erortzen bada.
- g) Laguntzaileak ezin izango du, inola ere, harria ukitu, hau harri-jasotzailearen sorbaldatik erortzen hasi arte.
- h) Atal hauetan adierazitako guztia beste inoren laguntzarik gabe egin beharko da, taulatutik atera gabe, eta taulatuaren aurreko aldean jarriko den sistema indargetzailearen aurreko aldera pasatu edo ukitu gabe.
- i) Harri-jasotzailea balantzaka has daiteke jasoaldian zehar, baina jasoaldia baliozkoa izan dadin, (d) atalean aipatutakoa bete beharko du.

23.art.- Epailearen arabera zalantza jasoaldia egin denean, zalantza kasuetan beti onena hartu behar denez kontuan, jasoaldia baliozkoa izango da. Hori bai, Epaileak, beste jasoaldi zalantza joko gertatzen bada, EZ BALIOZKOTzat joko duela ohartaraziko dio harri-jasotzaileari.

24.art.- Ekitaldi bateko azken jasoaldian, harria sorbalda gainean sestran jartzeko momentuan, txilibituak jo badu edo ekitaldiaren bukaerako soinua entzun bada, jasoaldia ontzat emango da, harri-jasotzaileak harria orduan zaku gainera edo sistema indargetzaile gainera botatzen badu, 23. artikuluan aipatutakoa betez.

25.art.- Arestiko 24. artikuluetan aipatutakoa betetzen ez duten harri-jasotze probek, beraz, Harri-jasotzeko araudia betetzen ez duten probek, kasu zehatz horietarako emandako arauen menpe egongo dira.

#### **MOLEEN EZAUGARRIAK**

26.art.- Izen honekin ulertzen ditugu:

- a) 5. eta 6. artikuluetan aipatutakoa betetzen ez duten harriak.
- b) Harrobi edo haitz berekoak ez diren harriak.
- c) Ingudeak, burdinazko, berunezko, eta egurrezko piezak, eta abar...

27.art.- Kontratua egitean edo lehiaketako oinarriak ezartzerakoan, pisu-jasotze proba berezi hauetako baldintzak argi zehaztuko dira.

28.art.- Pisatzeko eta frogatzeko, zein gainontzeko xehetasunetarako, Harri-Jasotzeko Araudian jartzen duenera joko dugu.

29.art.- Dagokion Federazioa izango da probako edo lehiaketako baldintzetan ezarritakoa betetzen denaren arduradun. Federazioek halaber, akta jasoko dute, pisu eta forma ezaugarriak adieraziz, baita jasoaldiak nola egin diren ere.

#### **EUSKADIKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA**

##### **HARRI TXIKIAK JASOTZEKO EUSKADIKO TXAPELKETA:**

Mailak: - Orokorra

- 80 kiloz beherakoa

##### **Erabili beharreko harriak:**

Bola.....100 kilo

Kubikoa.....112,5 kilo

Zilindrikoa.....125 kilo

Laukizuzena..125 kilo

Ekitaldiek 3 minutuko iraupena izango dute. Saio bat amaitu eta hurrengo hasi bitartean gutxienez hamabost minutuko atsedena izango du kirolariak.

## **HARRI HANDIAK JASOTZEKO EUSKADIKO TXAPELKETA:**

### **Erabili beharreko harriak:**

Bola.....125 kilo

Kubikoa.....150 kilo

Zilindrikoa.....175 kilo / 200 kilo

Laukizuzena...175 kilo / 200 kilo

Harri-jasotzaileak hautatuko du harri zilindrikoen eta laukizuzenen pisua. Ezin izango dira biak pisu berekoak izan.

Ekitaldiek 3 minutuko iraupena izango dute. Saio bat amaitu eta hurrengoa hasi bitartean gutxienez hamabost minutuko atsedenaldea izango du kirolariak.

## **KINTOPEKOEN EUSKADIKO HARRI-JASOTZE TXAPELKETA:**

Kintopeko, 21 urtez beherako harri-jasotzailea hartuko dugu, hots, urte horretan 21 urte beteko ez dituen harri-jasotzailea.

### **Erabili beharreko harriak:**

Kubikoa.....100 kilo

Zilindriko zaharra...100 kilo

Ekitaldiek 3 minutuko iraupena izango dute. Saio bat amaitu eta hurrengoa hasi bitartean gutxienez hamabost minutuko atsedenaldea izango du kirolariak.

## SOKATIRA

### DEFINIZIOAK ETA XEHETASUNAK

#### 1 SOKATIRA

Sokatira kirol bat da, Nazioarteko Sokatira Elkartetako kide ofizialak diren taldeek eta TWIF-eko kideek praktikatzen dutena. Partaideak amateurak izan beharko dira, TWIF-eko xedapenen arabera, eta euren betebeharra da Nazioarteko Sokatira Federazioaren (*Tug of War International Federation*) Araudia eta Arauak errespetatzea.

#### 2 KATEGORIAK

(a) Nazioarteko Sokatira txapelketetan ondorengo kategoriak onartzen dira.

Lurzoruan eta goman

Maskulinoa eta femeninoa

Senior, Sub23 eta Junior

Mistoa 4x4 Maskulinoa eta Femeninoa

(b) TWIF-ren ardurapean antolatzen da urtero Munduko Txapelketa bat Junior kategorian maskulinorako eta femeninorako.

#### 3 PISU KATEGORIAK

Nazioarteko txapelketa guztietan aplikatuko dira ondorengo pisu kategoriak:

Mundukoa (W) Europakoa (E) Goman (I.) Lurrean (O.)

Pisu Ultraluma	gainditu gabe	480 Kilo Junior Femeninoa (I.O.) W.
Pisu Luma	gainditu gabe	500 Kilo U23 Femeninoa (I.O.) W
Pisu Arina	gainditu gabe	500 Kilo Senior Femeninoa (I.O.) W.
Pisu arina astuna	gainditu gabe	520 Kilo Senior Femeninoa (O.) E
Pisu astuna	gainditu gabe	540 Kilo Senior Femeninoa (I.O.) W.
Pisu arina	gainditu gabe	560 Kilo Senior Femeninoa (O.) E
Pisu arina	gainditu gabe	560 Kilo Junior Maskulinoa (I.O.) W
Pisu arina	gainditu gabe	560 Kilo Senior Maskulinoa (I.) W. (O.) E.
Pisu arina	gainditu gabe	580 Kilo Senior Maskulinoa (O.) W.
Pisu ertaina arina	gainditu gabe	600 Kilo Sub23 Maskulinoa (I.) W.
Pisu ertaina arina	gainditu gabe	600 Kilo Senior Maskulinoa (I.) W
Pisu ertaina	gainditu gabe	640 Kilo Senior Maskulinoa (I.O.) E.W.
Pisu gurutzadura	gainditu gabe	680 Kilo Senior Maskulinoa (I.) W. (O.) E
Pisu astuna	gainditu gabe	700 Kilo Senior Maskulinoa (O.) W.
Pisu astuna	gainditu gabe	720 Kilo Senior Maskulinoa (O.) E.
Peso libre	pisu mugarik gabe	
Mistoa (4 x 4)	gainditu gabe	600 Kilo Senior Mistoa (I.O.) W

#### 4 PISAKETA ETA ZIGILATZEA

1. Atleta guztien betebeharra da euren egiaztagiria jasotzea, dagozkien ordainketak egin ondoren.
2. Tiratzaile guztien betebeharra da une jakin batean pisatzea.
3. Egiaztagiriaren deskarga burutuko da, herrialde jakin bateko tiratzaile guztien zerrenda barne, ikuskatzaileari eta herrialde horretako ordezkari esleituari soilik ikustea dagokiena.
4. Tiratzaile bakoitza baskula bakarrean pisatuko da. Baskula kopurua organizazioari eta TWIF-ri dagokie zehaztea. Baskula ofizialak soilik erabili ahal izango dira.
5. Pisatzearen ondoren, tiratzaileen pisua Excel kalkulu orrian erregistratuko da eta eskuz idatziko da segurtasun kopia bezala deskargatu den Excel artxiboan.
6. Tiratzaileen jakinaren ganean jarriko da euren pisu egiaztatua, eta hauek, aldi berean, taldeko entrenatzaileari jakinaraziko diote.
7. Taldeen partaidetza  
Taldea bateko entrenatzaileak, TWIF-ko klubaren txapelketan parte hartzen duenak, pisuen zerrenda aurkeztu beharko du, une jakin batean kontrolatua izateko. Pisuen zerrendak barne hartuko ditu izena, egiaztagiri zenbakia eta tiratzaile bakoitzaren pisua, pisu kategorian bateko pisu egokia osatu arte. Taldea osatuko da zortzi tiratzaileekin, entrenatzaileekin eta botileroarekin.

7.1 Entrenatzaile batek tiratzaile kopurua aldatu ahal izango du zigilatzearen unera arte, baldintza bere pisu kategoriako gehieneko pisua ez gaingitzea izanik. Aldaketak epaileei jakinaraziko die entrenatzaileak, zigilatzea abiatu baino 30 minutu lehenago.

## 8. Selektzio nazionalen pisatzea.

Selektzio nazional baten entrenatzaileak, bere herrialdeko Excel artxibo deskargatuan dagokion pisuaren alboan azaltzen den edozein tiratzaile hautatu ahal izango du.

8.2 Entrenatzaile batek tiratzaile kopurua aldatu ahal izango du zigilatzearen unera arte, betiere bere pisu kategoriako gehieneko pisua gainditzen ez denean. Aldaketak epaileen jakinaren gainean jarriko ditu entrenatzaileak, zigilatzea abiatu baino 30 minutu lehenago.

9. Selektzio nazional bateko entrenatzaileak, dagokion pisu egiaztagiria aurkeztu ahal izango du edozein unetan, kontrolatua izateko.

10 Epaileek zozketa egingo dute pisu kategorია bakoitzeko taldeekin, pisua eta egiaztagiri zenbakiak Excel zerrenda deskargatuan egiaztatu ondoren.

11. Eskanerrak/barra-kodeak erabilgarri jarriko dira gunere berezietan ordezkapenak kontrolatzeko eta txapelketen garapenean zehar pisatze kontrolak egingo dira.

## 5 ADIN MUGAK

### 5.1 Junior Kategoría

**Tiratzaile batek** parte hartu ahal izango du junior kategorian, honek 15 urte betetzen dituen urtearen hasieratik 18 urte betetzen dituen urtearen amaiera arte.

### 5.2 Sub-23

**Tiratzaile batek** sub-23 kategorian parte hartu ahal izango du, 18 urte betetzen dituen urtearen hasieratik 22 urte betetzen dituen urtearen amaiera arte.

### 5.3 Senior

**Tiratzaile gizonezko batek** senior kategorian parte hartu ahal izango du, 18 urte betetzen dituen urtearen hasieratik.

**Tiratzaile emakumezko batek** senior kategorian parte hartu ahal izango du 16 urte betetzen dituen urtearen hasieratik.

## 6 Taldeak eta ordezkapenak.

### 6.1 Talde bateko tiratzaile kopurua

Txapelketa hasierako taldeak zortzi kide tiratzaileekin eratu dira. Proba abiatu egin dela kontsideratuko da, talde biak epailearen ikuskaritzapean tiratzeko prest izaten direnean.

### 6.2 Selektzio nazionalako kideak

Selektzio nazional bateko kideak ordezkatzeko duten herrialdeko hiritarrak izan beharko dira. Bere nazionalitatea egiaztatzeko, gobernu nazional batek emandako pasaporteak edo identifikazio txartelak soilik onartuko dira. Talde bat tiratzaileekin, entrenatzaileekin eta botileroekin eratu da.

### 6.3 Ordezko baten erabilerarako baldintzak

Ordezkariek edozein tiratzaile ordeztu ahal izango du, txapelketak irauten duen bitartean. Ordezkapena egin ondoren, ezin da aldaketa gehiago egin.

Ordezkapena taktika arrazoiengatik edota lesio batengatik erabili ahal izango da.

Ordezkapena soilik egin ahal izango da taldea pisatu denean eta honi tiratzea dagokion lehenengo partidua amaitu denean.

Tiratzaile ordeztuak ezin izango du parte hartu pisu kategoría horren ondorengo partidua bakar batean. Ordezkoa tiratzaile erregistratua izango da Klub edo Herrialde batean zeinen izenean ordeztu modura jardungo den.

### 6.4 Ordezkapen prozedurak.

Biak, ordeztu beharreko tiratzailea eta ordeztuak, tiratzeko jantzi guztiekin (kamiseta, galtza motzak, galtzerdiak eta oinetakoa) eta euren egiaztagiri txartelekin bertaratu beharko dira Epaileen Buruaren aurrean, eta honek ofizial bat esleitu ahal izango du ordezkoez arduratzeko.

6.4.1 Egiaztagiri txartelak erabiliko dira tiratzaileak eta horien pisuak egiaztatzeko, eskaneatzearen edota txartel horiek sisteman ezartzearen bidez.

Ordezko tiratzaileak ordeztuak pisu berdina edo txikiagoa izan beharko du. Taldearen pisu guztia ezin da hedatu ordeztuaren pisuarekin, ezta taldeak hasiera batean dagokion kategoriako gehieneko pisua baino urriagoarekin parte hartu bazuen ere.

Aldaketa egin eta berehala, Epaileen Buruak edo ofizial esleituak tiratzaile ordeztuaren zigilua edo marka ezabatuko dute eta ordeztuak antzeko marka adieraziko du, markagailu ezabaezinekin. Epaileen Buruak edo ofizial esleituak ordezkapena adieraziko dute dagokion pisatzearen egiaztagirian, aldaketetan parte hartu duten tiratzaileen akreditazio zenbakiak gehituz eta ezabatuz.

## 6.5 Tiratzaileen kopuru minimoa.

Ez da onartuko bigarren aldiz ordeztea. Bigarren lesioaren kasuan, taldeak zazpi tiratzaileekin jarraitu ahal izango du. Ez da onartuko talde batek zazpi tiratzaile baino gutxiagorekin lehiatzen jarraitzea.

## 7 ENTRENATZAILEA / BOTILEROA

Talde bakoitzak entrenatzailearekin konta dezake, honek jaurtiketak zuzendu ditzan.

Halaber botilero bat onartzen da talde bakoitzeko. Botileroaren funtzioa da bere taldea zaintzea, jaurtiketen aurretik eta ondoren. Botileroari debekatu egiten zaio bere taldearekin hitz egitea, jaurtiketa egiten ari denean, eta jaurtiketaz arduratzen den Epaileak agindu tokian ezarri beharko da.

## 8 KIROL EKIPAMENDUA

### 8.1 Kiroleko arropa

#### 8.1.1 Tiratzaileen kirol arropa

Taldeek kiroleko arropa egokia eramango dute jantzita, alegia, galtza motzak, kiroleko kamiseta edo jertsea eta galtzerdiak. Taldeko tiratzaileen kiroleko arropa uniformeak izan beharko da.

#### 8.1.2 Kapitainaren eta botileroaren kirol arropa

Talde bateko kapitainak eta botileroak kiroleko arropa edo txandal egoki berdina eraman beharko dute, taldearen kiroleko arroparen kolorearekin / koloreekin egokitzen dena.

#### 8.1.3 Buruko janzkiak

Tiratzaileak, entrenatzaileak eta botileroak baimena dute buruan txapela, bisera edo zapia eramateko, betiere euren kirol ekipazioaren koloreekin egokitzen denean.

*Salbuespena: durbanteak edo bestelako elementuak onartuak izango dira erlijio edo kultura ezberdinen adierazgarri modura. Erabaki hauek kasu bakoitzaren arabera hartuko dira.*

#### 8.1.4 Babesteko arropa

Azala babesteko arropa eraman ahal izango da kiroleko arroparen azpitik, betiere epaileak hori onartzen duenean. Babesteko uhalak soilik onartzen dira kiroleko arroparen gainetik jantzen direnean. Aingurari dagokion babesteko arropak gehienez 5 zentimetroko lodiera izango du eta beti kiroleko arroparen azpitik eraman beharko da jantzita, sokaren eta gorputzaren artean ezarrita. Debekatuta dago kakoak, ildaskak edota babesteko arropetan soka blokeatzea bilatzen duten bestelako eraketak erabiltzea. Aingurarako gomendatu txalekoa (ikusi 43. orr.)

### 8.2 Erretxina

Erretxina onartuta dago sokaren eustea errazteko eta bere erabilera eskusiboki eskuetara mugatzen da. Goman eginiko txapelketetan erretxina erabili ahal izaten da baimen hori in situ eskuratu izaten denean soilik, eta kasu horretan epaileen adierazpenen arabera eskusiboki aplikatu beharko da.

### 8.3 Pisatzeko arropa

Talde maskulinoak pisatu ahal dira neurri egokikoak eta gardenak ez diren galtza motzak soilik jantzita. Talde femeninoak pisatu ahal dira neurri egokikoak eta gardenak ez diren kamiseta eta galtza motzak soilik jantzita. Botak ez da beharrezkoa jantzita eramatea, ezta eskuan ere, baskulara igotzeko unean.

### 8.4 Oinetakoa

#### 8.4.1 Lurrerako oinetakoa

Zola, takoia eta takoiaren alboak behar bezala nibelatuta egon behar dira. Debekatuta dago metalezko zolak, metalezko oin-puntakoak edota metalezko plakak erabiltzea. Debekatuta dago zola gainditzen duten ziriak edo iltzeak erabiltzea. Boten itxituretan ez da onartuko irteten den kakorik eramatea, lesioak eragin ahal izango bailituzkete. Takoia metalez txapatua izatea onartzen da, betiere lodiera gehienez 6,5 mm-koa izaten denean, alboetan eta botaren azpialdean nibelatuta dagoenean. Takoiaren neurriak ezin du gainditu zolaren azalera osoaren herena baino gehiago eta laurdena baino gutxiago ere ez.

Zolatik neurtzen den takoiaren lodiera gutxienez 6,5 mm-koa izango da eta gehienez 25 mm-koa (metalezko txapa barne) (Ikusi 41. orr.)

#### 8.4.2 Gomarako oinetakoa

Goman eginiko sokatiran erabili beharreko oinetakoa kirol oinetakoen fabrikatzaile bati dagokio fabrikatzea. Zola egokitu ahal izango da, baina honen luzera eta zabalera ezin izango dira oinetakoaren goialdea baino handiagoak izan. Zola gomazkoa edota euste egokia dakarren beste edonolako materialarekin fabrikatu ahal izango da, betiere lurzorua edo jaurtiketa azalera kaltetuko ez duena. Zolaren luzerak eta zabalera gehienez tiratzailearen oinak "oinutsik" duen neurria gehi % 20a hartuko dute. Oinetakoaren zolan aplikatu ahal den material edo substantzia bakarra zapi lehorra eta garbia da, inolako produktu kimikorik edo fluidorik ez dakarrenik.

Honen inguruko eztabaidaren kasuan, epaile bezala jardungo dira Txapelketaren kontrolaz arduratzen diren ofizialak.

## **9 SOKEN INGURUKO XEHETASUNAK**

### **9.1 Sokaren dimentsioak**

Sokaren zirkunferentzia gutxienez 10 cm-koa (100 mm) eta gehienez 12,5 cm-koa (125 mm) izango da, korapilorik eta bestelako eskuetarako euste-gunerik gabe. Sokaren muturrak usta eran amaituko dira (akabera azpildua). Sokaren gutxieneko luzera 33,5 metrotik gorakoa izango da.

### **9.2 Sokaren markak**

Zintak edo markak sokan ezarriko dira, betiere horiek Epaileak erraz doitu ahal izateko moduan, soka tenkatu edo uzkurtu egingo balitz.

#### **9.2.1 Sokaren markak zoruan**

Bost marka edo zinta erantsi beharko dira sokan, ondorengo moduan:

- (a) Zinta edo marka bat (1) sokaren erdigunean
- (b) Bi (2) zinta edo marka, bakoitza erdiguneko zintaren albo banaren lau (4) metrora aurkitzen direnak
- (c) Bi (2) zinta edo marka, bakoitza erdiguneko zintaren albo banaren bost (5) metrora aurkitzen direnak
- (d) Marka marradunak, (a), (b) eta (c), hiru kolore ezberdinekoak izango dira

#### **9.2.2 Sokaren markak goman**

Hiru marka edo zinta erantsi beharko zaizkio sokari, ondorengo moduan:

- (a) Zinta edo marka bat (1) sokaren erdigunean
  - (b) Bi (2) marka edo zinta, bakoitza erdiguneko zintaren albo banatan bi metro eta erdira (2,5 m) aurkitzen direnak
- Marka marradunak, (a) eta (b), hiru kolore ezberdinekoak izango dira

## **10 JAURTIKETA EREMUA ETA MARKAK**

### **10.1 Jaurtiketa eremua eta lurzoruko markak**

Jaurtiketa-eremua laua izango da, belar nibelatuarekin estali azalera. Lurrean erdiguneko lerroa markatuko da.

### **10.2 Jaurtiketa eremua eta markak goman**

Jaurtiketa azalera kiroleko oinetako normalari eta TWIF-en aldetik onartuari behar bezainbat marruskadura emango dion materialarekin eratuta dago.

Jaurtiketa azalerarako luzera gomendatua 36 metrokoa izango da. Jaurtiketa azalaren zabalera gomendatua 100 – 120 zentimetrokoa izango da.

Jaurtiketa eremuan markatuko dira erdiguneko lerro bat eta bi alboko lerro, erdiguneko lerrotik lau (4) metrora, albo banatan

## **JAURTIKETA TEKNIKEN INGURUKO ARAUAK**

### **11 SOKA EUSTEA**

Lehiakide bakar batek ere ezin izango du soka heldu, kanpoko zintekin edo markekin mugatu gunean. Jaurtiketa bakoitzaren hasieran, tiratzaileak soka helduko du, kanpoko zintarekiko edo markarekiko ahalik eta hurbilen.

Sokari ez zaio korapilorik egingo, ezta eraztunik ere; halaber ezin izango da geratu trabatuta taldeko tiratzailearen baten gorputzeko atalen baten bidez. Soka gurutzatzen denean eraztuna eratu izaten da. Jaurtiketa baten hasieran, soka tenkatu egingo da, eta sokaren erdiguneko marka hain zuzen lurzoruko erdiguneko markaren gainean suertatuko da.

### **12 JAURTIKETARAKO POSIZIOA**

Aingura alde batera utzita, taldeko tiratzaile bakoitzak soka helduko du esku biek, beste ezer gabe, modu klasikoan, hau da, lehiatzen ari diren esku-zabal biek, eta sokak beti zeharkatuko du gorputza eta besoaren goialdea arteko gunea. Aingura finkatzeko, ikusi 13. Artikulua.

Sokaren mugimendu askea eragozten duen beste edonolako euste modu batek blokeatzea edo “ixtea” eragingo du, hori arau-haustea izanik. Oinak belauen aurretik ezarriko dira eta taldekideak jaurtiketa posizioan ezarri beharko dira, une orotan.

### **13 AINGURAREN POSIZIOA**

Azken tiratzailea Aingura izendatuko da. Sokak gorputza zeharkatuko du, diagonaletik bizkarra zeharkatuz, kontrako sorbaldaren gainetik, atzealdetik aurrealderantz. Soberan dagoen sokak besapea zeharkatuko du, atzeko kanpoalderantz, amaiera aske geratuz. Aingurak orduan soka modu klasikoan helduko du, hau da, eskuzabalak elkartuta, besoak aurrerantz hedatuz. **Aingurari ahalbidetzen zaio soka uhal babeslearen mailaren azpitik mantentzea, eta segurtasun neurriak direla medio, hori ez da Blokeatzea kontsideratuko.**

## **ARAUAK URRATZEA**

### **14 TXAPELKETAN ZEHAR EGINIKO ARAU-HAUSTEAK**

#### **14.1 Arau-hauste orokorrak**

- 1 Esertzea. Nahita lurzoruan esertzea edo berehala jaurtiketa posizioa ez itzultzea, labaindu ondoren
- 2 Eustea. Lurzorua ukitzea, oinak ez diren gorputzaren beste edozein atalekin
- 3 Blokeatzea. Sokaren mugimendu askea eragozten duen edonolako lotura
- 4 Heltzea. Soka eusteko beste edonolako modu, 11, 12 eta 13 Arauetan deskribatu forma normala izaten ez dena
- 5 Eskoratzea. Soka eustea, honek gorputza eta besoaren goialdea ez zeharkatzeko moduan
- 6 Posizioa. Oin baten edo gorputz-adar baten edota belaubaren aurretik hedatu gabeko oinaren gainean esertzea
- 7 Sokan zehar igotzea. Soka eskuetan zehar pasatzea
- 8 Arraunean egitea. Lurrean behin eta berriro esertzea eta aldi berean hankak atzerantz mugitzea
- 9 Ainguraren posizioa. 13. arauan deskribatua ez den beste edonolako jarduera
- 10 Botileroa. Botileroak bere taldearekin hitz egiten du hauek tiraka ari diren bitartean
- 11 Geldi egotea. Tiratzean esfortzua egin nahi ez duten taldeak, geldialdi/geratze luzea egitean, kirolari ospea kendu ahal izanik, "tiratze nulua" kontsideratuko da, edozein unetan. *Tiratzea berriz hasiko da eremu berri batean edo ez hain urratu batean, tiratzeari dagokion jatorrizko gunetik hurbil. Norgehiagoka ezin izango da berriro abiatu jatorrizko tiratze pistan. Jarduera gabeko uneak dakartzan tiratzea hamar minutukoa baino gehiagokoa izaten denean, Epaileen Buruak ohartaraziko du Epaile nagusia, "tiratze nulua" agindu dezan.*
- 12 Aldentzea. pistatik, kanaletik edo azaleratik kanpo irtetea, legez kanpoko abantaila lortzeko.

#### **14.2 Arau-hausteak lurzoruko txapelketetan**

- 13 Oina finkatzea. Edonolako zulo, marka edo hutsune zulo egitea lurrean, soka Tenkatzeko agindua eman aurretik.

## **15 DESKALIFIKAZIOA**

Taldeek bi (2) abisu jasoko dituzte Arauak urratzeagatik tiratze saio bakoitzean (1), deskalifikatuak izan aurretik. Arauak urratzen diren bakoitzean, pertsona bakar batek arau-haustea egiten badu, talde osoa erruduntzat hartuko da.

## **16 ARAUAK URRATZEA**

Nazioarteko Txapelketaren Arauetako bat urratzen denean, Txapelketako taldeak kanporatzeko bidea eman dezake.

## **NORGEHIAGOKAK ETA TXAPELKETAKO PUNTUAZIOA**

### **17 NORGEHIAGOKAK, TIRATZE SAIOAK ETA ATSEDENALDIAK**

Puntukako txapelketa bat ( $n \times (n-1)/2$  partidutan datza, zeinetan "n" txapelketako talde kopurua izango den. Partidu bakoitza bi (2) tiratze saioekin eratzen da.

Tiratze saioen artean atsedenaldea egingo da.

Gehienez sei (6) minutuko atsedenaldea eskatu ahal izango da partiduen artean, talde batek txapelketa eremua uzten duenean hasi eta taldea txapelketa eremura berriro sartzeko prest joko-eremuaren sarreran dagoenean amaitzeko.

## **18 ALDEEN ZOZKETA**

Tiratze saioa abiatu aurretik joko-eremuaren aldea hautatuko da, horretarako txanpon bat jaurtiaz. Lehenengo tiratze saioa amaitzean, taldeek aldea trukatuko dute. Hirugarren tiratze saioa beharrezkoa izango balitz, berriro jaurtiko litzateke txanpona aldeak zozkatzeko.

## **19 TIRATZE SAIOA IRABAZTEA**

### **19.1 Tiratze saio orokorra irabaztea**

Talde bat tiratze saioan garaile aldarrikatzen da soka dagokion distantziara eramaten duenean, marken adierazpena kontuan hartuta edo bestela Epaileak talde aurkaria deskalifikatzen duenean.

### **19.2 Tiratze saioa irabaztea lurzoruan**

Tiratze saioan garaile aldarrikatzeko, sokaren kanpoko marketako bat gurutzatu egingo da, lurzoruko erdiguneko lerroa gainditu arte.

### **19.3 Tiratze saioa irabaztea goman**

Tiratze saio bat irabazten da sokaren kanpoko marketako batek lurreko kontrako alderdiaren kanpoko marka gurutzatzen eta gainditzen duenean.

## **20 PUNTUAZIOA**

### **20.1 Txapelketako Puntuazioa**

Talde batek norgehiagoka irabazten duenean bi (2) eta zero emaitzarekin, hiru (3) puntu eskuratuko ditu eta talde galtzaileak berriz zero (0) puntu. Talde bakoitzak tiratze saio bat irabazten badu, bakoitzari puntu bat (1) dagokio.

### **20.2 Sailkapena, Finalurrekoak eta Finalak**

Partiduak irabaziko ditu hiru (3) tiratze saiotan bi (2) garaipen lortzen dituen taldeak. Talde batek norgehiagoka bat irabazten duenean bi (2) eta zero (0) emaitzarekin, hiru (3) puntu eskuratuko ditu, eta talde galtzaileak berriz, zero (0) puntu. Talde batek norgehiagoka bi (2) eta bat (1) emaitzarekin irabazten duenean, bi (2) puntu adieraziko ditu eta talde galtzaileak puntu bat (1).

## **21 TIRATZE SAIO NULUA**

“Tiratze saio nulua” kontsideratzen da

(a) talde biek arau-hausteak egin dituztenean, bi aldiz ohartarazpenak jaso ondoren

(b) talde biek geldi egotearen errua dutenean

(c) talde biek soka askatzen dutenean, tiratze saioa amaitu baino lehen

(d) tiratze saioa etetea, talde bietako bakar batek inolako akatsik egin ez duenean.

“Tiratze saio nulutzat” hartzen denean a) b) edo c) kasuetan, ez da atsedenaldirik emango eta tiratze saioa berehala berreskuratuko da, inolako laguntzarik edo zerbitzurik gabe. “Tiratze saio nulua” kontsideratzen denean d) kasuan, dagokion atsedenaldea emango da.

## **ARBITRAJEA**

### **22 OFIZIALAK ETA EPAILEAK**

Nazioarteko Sokatira Federazioak nazioarteko txapelketa guztien kontrolaz arduratuko diren ofizialak esleitu ahal izango ditu.

Batzorde Teknikoak epaileen behin-betiko hautaketa egin beharko du nazioarteko txapelketetan.

### **23 ARBITROAREN, IKUSKATZAILEAREN ETA EPAILE NAGUSIAREN AHALMENAK**

Norgehiagoka batean partaide izaten den edozein talde edo pertsona sokatiraren kirolari ospea kentzeko eragina dakarten ekintzen arduraduna izaten denean, Epaileak, Ikuskatzaileak edo Epaile nagusiak, euren artean koordinatuta, talde hori eta/edo pertsona horiek kanporatu ahal izango dituzte txapelketa horretatik. Arbitroak xede horretarako txostena entregatu beharko dio TWIF-eko Batzorde Betearazleari eta honek, bere estatutuetoako 12. Artikuluaren arabera, diziiplina neurri osagarriak hartu ahal izango ditu aipatu taldearen eta/edo pertsonen kontra.

### **24 EPAILEAREN AHALMENAK ETA ERANTZUKIZUNAK**

Partidu baterako izendatu epaileak erabateko kontrola izango du harekiko.

Bermatzeko ardura dagokio:

(1) “TWIF”-ko Arauak errespetatu daitezen.

(2) soka ezarrita eta prestatuta egotea txapelketarako, taldeak tiratze eremura iritsi aurretik.

(3) ordutegi programatua bete araztea, ahal den neurrian.

(4) atsedenaldiak ematea, 17. Arauan xedatuari jarraiki.

(5) “Tiratze nulua” adieraztea.

(6) aurretiaz ohartarazia izan den talde bat edo talde bat baino gehiago kanporatzea.

(7) epaile batek aurretiko ohartarazpena eman ahal dio talde bati, tiratze saio batean zehar.

(8) talde bat aurretiko ohartarazpenik gabe deskalifikatzea, jarrera desegokiaren errunduntzat hartzeagatik, kirolari ospea kendu ahal dioten hitzak edo ekintzak direla medio.

Epaile arduradunak falta bat adierazten duenean, seinale kodearen bidez, taldea izendatuko du eta “lehenengo ohartarazpena” edo “azken ohartarazpena” hitzak erantsiko ditu. Epailearen instrukzio horiek argi eta garbi adierazi beharko dira, dagozkien seinaleekin lagunduta.

Epailearen erabakia behin-betikoa izango da egoera orotan.



## 25 LERRO EPAILEEN ARDURAK

Lerro Epailleak une orotan partiduko Epaillearen zuzendaritza errespetatuko du. Tiratze saioan zehar, Lerro Epaillea ezarriko da Epaille nagusiaren kontrako aldean ezarri diren talde partaideen alboan. Lerro Epailleak taldeak behatuko ditu eta Epaille nagusiari arau-hausteak adieraziko dizkio, keinuen kode komunaren bidez. Lerro Epailleak talde ohartaraziari jakinaraziko dizkio Epaille nagusiak adierazi dizkion faltak.

## 26 PISATZEAZ ARDURATZEN DEN EPAILEA

Nazioarteko txapelketetan, TWIF-ri dagokio laguntzaileak esleitzea, pisatze Epaillearen (pisatze prozeduraren epaille arduraduna) aurrean erantzun beharko dutenak, lehiakideen pisatze eta zigilatze zuzena zainduz.

## SEINALEAK ETA AGINDUAK

### 27 HASIERA PROZEDURA

Epailleak dena prest dagoenaren seinalea jasotzen duenean bi entrenatzaileen aldetik, taldeentzat ondorengo ahozko eta ikusmen adierazpeneko aginduak emango ditu:

Soka hartzea. Orduan soka hartuko da, 10, 11 eta 12 puntuetan adierazten den bezala, oin lauak lurzoruan ezarrita.

Soka tenkatzea. Soka tiratuko da, tenkatu dela bermatzeko behar bezainbat.

Lurreko txapelketetan, tiratzaile bakoitzak zulo edo marka bat egin dezake lurrean, botaren takoiarekin edo alboarekin, hedatutako hankarekin

Prest. Orduan, Epailleak seinaleak egingo ditu soka erdigunean ezarri arte. Soka tenkatuta eta geldirik dagoenean, bere erdiguneko marka lurzoruko erdiguneko lerroaren gainean

Tiratzea. Dagokion etenaldiaren ondoren

### 28 TIRATZE SAIOAREN AMAIERA

Epailleak adieraziko du tiratze saioaren Amaiera, bere txilibitua jotzean eta hatzarekin talde garailea adieraztean, edo "Tirada nuluaren" kasuan, besoak gurutzatu eta erdiguneko marka adieraztean.

### 29 SOKATIRA TXAPELKETAKO AGINDU ZERRENDA

AGINDUA	SEINALEA
1 Taldea, prest?	Taldea besoarekin adierazita
2 Soka hartu	Besoak gorputzaren aurrean hedatuta
3 Soka tenkatu	Besoak gorantz hedatuta, esku-zabalak barrurantz ezarrita
4 Soka erdigunera	Erdigunerantz mugitu behar den aldea adierazita
5 Prest	Besoak gorantz hedatuta, esku-zabalak kanporantz ezarrita
6 Tiratu	Besoak alboetara hedatuta
7 Irabazlea adierazi	Txilibitua jo eta talde garailea adierazita
8 Aldeak aldatu	Txilibitua jo eta besoak buruaren gainetik gurutzatuta
9 Tiratze nulua	Txilibitua jo eta besoak gorputzaren aurrean gurutzatuta
10 Falta	Besoak altxatuz talde arau-haustearen aldekoa eta lehenengo edo bigarren falta hatz batekin edo birekin adierazita

### 30 TXAPELKETAKO ARAU-HAUSTE KOMUNEN ZERRENDA

ARAU-HAUSTEA	SEINALEA
1 ESERTZEA	Esku-zabala horizontalki mugitzea
2 EUSTEA	Eskua zabalik horizontalki, lurzorua adierazita
3 BLOKEATZEA	Ukondoarekin hanka altxatuaren goialdea ukituta
4 HELTZEA	Bi ukabilak bata bestearen aurrean
5 ESKORATZEA	Gorantz eginiko mugimendua, eskuak gorputzean zehar ezarrita
6 POSIZIOA	Ostikadak emateko eta beheko hanka hedatzeko mugimendua
7 SOKAREN GAINETIK IGOTZEA	Ukabilekin gora egiteko mugimenduak
8 ARRAUNEAN EGITEA	Besoarekin eta gorputzaren goialdearekin arraunean egiteko mugimendua
9 AINGURA HELTZEA	Eskuarekin bizkarra ukituta
10 BOTILEROA	Hatza ezpainenetara eramanda
11 OINAREN FINKAPENA	Ostikadak ematea takoiak lurzoruan ezarrita
12 ALDENTZEA	Oin batekin alborantz oinkada bat ematea

## TXAPELKETAREN EGITURA

### 31 Orokorra

TWIF-ko Nazioarteko Txapelketetako lehiaketetan sailkapen txanda, finalurrekoak eta finalak hartzen dira barne. Sailkapen txanda puntukako txapelketa batean datza. Puntukako txapelketa honetan zozketa bakarra ospatuko da. Zozketa hau Nazioarteko Sokatira Federazioko esleitu ordezkarien aurrean ospatuko da.

Sailkapen txandaren ondoren, lau talde pasatuko dira finalurrekoetara. Finalurreko partiduetako galtzaileak brontzezko domina lortzeagatik lehiatuko dira eta finalurreko partiduetako irabazleak finalean lehiatuko dira, urrezko eta zilarrezko dominak eskuratzeko.

### 32 Taldeen kopuru minimoa

Munduko Txapelketetan edo Txapelketa Kontinentaletan parte hartzeko ezinbestekoa da pisu kategoria bakoitzerako gutxienez 4 talderekin kontatzea. Pisu kategoria jakin batean lau talde ez baleude, ez litzateke kontsideratuko Munduko edo Eskualdeko Txapelketa.

### 33 Talde batekin lehiatzea

Pisu kategoria batean 12 talde baino gutxiago daudenean, talde guztiak sailkapen txanda batean lehiatu beharko dira.

Sailkapen txandako lau talde onenak finalurrekoetan lehiatuko dira.

1. Postuan sailkatzen den taldea 4. postuan sailkatu denarekin parekatuko da eta 2. postuan sailkatu den taldea berriz, 3. postuan sailkatu denarekin.

Finalurrekoetako garaileak urrezko eta zilarrezko dominak eskuratzeko lehiatuko dira eta galtzaileak berriz, brontzezko domina eskuratzeko.

### 34 Talde bat baino gehiagorekin lehiatzea

Pisu kategoria batean 12 talde baino gehiago daudenean, sailkapen txanda bi taldetan banatuko da.

Taldeen kokapena aurreko txapelketa puntuagarrietan (eskualdeko eta munduko txapelketak) oinarrituko da.

Sailkapen txandaren ondoren lehenengo eta bigarren postuan sailkatzen diren taldeak finalurrekoetan lehiatuko dira. Bere multzoko lehen postuan sailkatzen diren taldeak beste talde bateko bigarren postuan sailkatu taldeen kontra lehiatuko dira. Sailkapen txandaren ondoren, multzo bateko lehenengo bi taldeak puntuka berdinduta daudenean, bere sailkapena 35. Arauaren arabera ebatziko da.

### Multzo bateko talde kopurua zehazteko sistema

gutxiago    4 talde baino    Ez dago txapelketarik

4-11            talde            1 talde

12-22          talde            2 talde

23-44          talde            4 talde

44<            talde            8 talde

### 35 Sailkapen txandarako sailkapenaren ebazpena

Sailkapen txandaren ondoren, oraindik finalurrekoak lehiatzeko asmotan dabiltzan taldeak daudenean, ondorengo arauak aplikatuko dira finalurrekoetarako sailkatuko diren taldeak zeintzuk diren ebazteko. Arau hauek halaber aplikatuko dira taldeen sailkapen hurrenkera ebazteko, puntu kopuru berdinarekin sailkapen txandan.

#### (1) Partiduen emaitza

Sailkapen txandetan euren artean lehiatu partiduetan emaitza onenak lortu dituzten taldeak lehenak izango dira finalurrekoetan sailkatzen.

#### (2) Partidu irabaziak

Taldeen arteko emaitzekin berdinketa hausten ez denean, partidu gehien irabazi dituen taldea izango da finalurrekoetara pasatzen dena.

#### (3) Ohartarazpenak

Lehenengo 2 aukerekin berdinketa haustea lortzen ez denean, sailkapen txandetan ohartarazpen kopuru txikieneko taldeak izango dira finalurrekoetan parte hartzeko lehenak sailkatzen. (Partidu bateko talde baten ohartarazpen kopurua bat etorriko da partidu horretako tiratze saiotan metatu ohartarazpenen kopuru osoarekin. Sailkapen txandetatik kanporatua izaten den taldeak tiratze saio horretan 3 ohartarazpen metatu dituela kontsideratuko da. Tiratze nuluaren kasuan, Tiratze nulua adierazi baino lehenago jaso diren ohartarazpenak metatuko zaizkio partiduko taldearen ohartarazpen kopuru osoari. Tiratze nulutzat hartzen bada, 21 (a.) arauan xedatu arau-hausteetako baten ondorioz, talde biek 3 ohartarazpen metatuko dituzte.)

#### (4) Taldearen pisua

Lehenengo 3 aukerekin berdinketa hausten ez denean, gutxien pisatzen duen taldea izango da finalurrekoetarako sailkatzen lehena. Kasu honetan pisatze orrian erregistratu pisu egiaztatua erabiliko da.

#### (5) Zozketa

Aurreko aukeretako bakar batek berdinketa haustea lortzen ez duenean, finalurrekoetarako sailkapena zozketa bidez edota txanpona jaurtitzearen bidez ebatziko da.

### 36 Parekatzeak eta zozketak gainbegiratzea

Parekatzeak eta zozketak, xede horretarako esleitu txapelketako ofizialen ikuskaritzapean garatuko dira. Ofizial horiek arbitro bezala jardungo dira eztabaidak daudenean.


Nazioarteko Txapelketetarako Araudiari eginiko zuzenketak

Zuzendua hiri hauetako Urteko Kongresuan

Drogheda	Irlandako Errep.	noiz	1992ko apirilak 11
Londres	Ingalaterra	noiz	1993ko apirilak 24
Rochester	EE.BB.	noiz	1998ko apirilak 18
Mogelsberg	Suitza	noiz	2000ko maiatzak 6
Pretoria	Hegoafrika	noiz	2001ko apirilak 28
Assen	Holanda	noiz	2002ko apirilak 27
Rochester	EE.BB.	noiz	2003ko maiatzak 3
Cento	Italia	noiz	2004ko apirilak 21
Lurmutur Hiria	Hegoafrika	noiz	2005ko maiatzak 7
Minehead	Ingalaterra	noiz	2006ko maiatzak 6
Londres	Ingalaterra	noiz	2010eko maiatzak 2
Appenzell	Suitza	noiz	2011ko maiatzak 7
Belfast	Irlanda Iparraldea	noiz	2014ko apirilak 12

#### Erref: 8.4.1 Lurreko oinetakoa

##### 1. Eranskina Lurrerako oinetakoa



Zola, takoia eta takoiaren alboa erabat nibelatuta egon behar dira. Debebatuta dago metalezko zolak, oin-puntakoak edota plakak erabiltzea. Debebatuta dago zolatik edo boten takoitik irteten diren ziriak eta iltzeak erabiltzea. Boten itxituretan ezin da erantsi irteten den kakorik, lesioak eragin ahal izango lituzketelako. Metalezko takoi txapaduna onartzen da, gehienez 6,5 mm-ko lodierakoa, botaren alboetan eta behealdean nibelatuta dagoena. Takoiaren neurriak ezin du gainditu zolaren azalera osoaren herena eta ezin izango du hartu haren laurdena baino gutxiago.

Zolatik neurturiko takoiaren lodiera ezin da 6,5 mm-tik beherakoa izan, ezta 25 mm-tik gorakoa ere. (metalezko txapa barne)

## 2. Eranskina Aginduen seinaleak

		
TALDEA. PREST?	SOKA HARTU	SOKA TENKATU
		
SOKA ERDIGUNERA	PREST	TIRATU
		
GARAILEA ADIERAZI	ALDEAK ALDATU	TIRATZE NULUA
		
LEHENENGO FALTA	BIGARREN FALTA	

3. Eranskina Arau-hausteen seinaleak

		
<p>ESERTZEA</p>	<p>EUSTEA</p>	<p>BLOKEATZEA</p>
		
<p>HELTZEA</p>	<p>ESKORATZEA</p>	<p>POSIZIOA</p>
		
<p>SOKAREN GAINETIK IGOTZEA</p>	<p>ARRAUNEAN EGITEA</p>	<p>AINGURA HELTZEA</p>
		
<p>BOTILEROA</p>	<p>OINAREN FINKAPENA</p>	<p>ALDENTZEA</p>

## Erref. 8.1.4. Ainguraren Txalekoa



### SELEKZIO NAZIONALETAKO PUBLIZITATE ARAUAK

#### 1. Publizitaterako baldintzak

Selekzio nazional batek publizitatea eraman dezake bere txapelketa uniformetan TWIF-ko Txapelketetan, hemen aipatu baldintzak kontuan hartuta. Talde bat 8 tiratzaileekin, bere entrenatzaileekin eta bere botileroarekin eratzten da.

Enpresen eta produktuen izenen erabilera onartuta dago hala nola merkataritza markak eta produktu multzoak, betiere asmo txarrekoak izaten ez direnean.

Publizitatea ezin izango da politikan, erlijioan edo ideologian oinarritu.

Debekatuta dago alkoholaren, tabakoaren edo drogen publizitatea egitea.

Debekatuta dago pintura fluoreszenteak erabiltzea. Arau hau publizitateaz haratago, taldeen txapelketa uniformeak elaboratzeko erabiltzen den materialari ere aplikatu ahal izango zaio.

Txapelketa uniformeak TWIF-ko arauak bete beharko ditu.

Debekatuta dago publizitatea txapelketa uniformearen beste artikulua batzuetan erabiltzea (esaterako, oinetakoa, galtzetinak, etab.).

#### 2 Publizitate azalaren dimentsioak (Ikusi 4. Eranskina: Publizitate adibidearen irudia)

Gehieneko dimentsioak eta publizitatearen azalera osoa txapelketa uniformetan, ondorengoak izango dira;

10 cm-ko hizkiaren altuera, babeslearen izenean erabiltzen denean edo;

300 cm<sup>2</sup>-ko azalera, publizitate azalera bezala erabiltzen denean, edo;

150 cm<sup>2</sup>-ko azalera osoa, gehienez hiru publizitate azalera erabiltzen direnean, zeinetatik bi babesle berdinenak izan ahalko diren.

Entrenatzaile baten txapelketa uniformetako publizitatearen gehieneko dimentsioak eta azalera osoa ondorengoak izango dira:

75 cm<sup>2</sup>-ko azalera osoa, entrenatzailearen ekipazioan, zenbaki identifikatzaile bat eramango duena, gehienez 75 cm<sup>2</sup>-ko publizitate azalarekin (Ikusi adibidearen irudiak)

### 3 Zenbaki identifikatzaileak

Txapelketaren antolatzaileak zenbaki identifikatzaileak erabili ahal izango ditu TWIF-ko txapelketetan, publizitatea barne hartzeko. Taldeko entrenatzaileak zenbaki hauek eraman beharko ditu bere uniformean. Zenbakietan enpresa edo merkataritza marka baten izena soilik erabiltzea onartzen da, 5 cm-ko altuera eta 75 cm<sup>2</sup>-ko gehieneko azalera gainditzea ezinezkoa izanik. Zenbakiak ezin izango dira murriztu, tolestu edo aldatu.

### 4 Erantzukizuna

TWIF-ri ez dagokio inolako erantzukizunik bere gain hartzea, TWIFko federazio kide baten eta iragarleen edo babesleen arteko publizitate kontratuetatik eratorri ahal diren eztabaiden kasuan.

### 5 Zigorak konplimendu ezaren kasuan

Arau hauen konplimendu eza TWIF-ko Batzorde Betearazlean jorratuko da edo bestela isunarekin edo publizitatea erabiltzeko debekuarekin zigortu ahal izango da.

### 4. Eranskina Publizitate materialaren efektu irudiak



HIZKIAREN ALTUERA 10 CM



HIRU AZALERA GEHI. GUZTIRA 150 CM<sup>2</sup>



AZALERA BAT GEHI. 300 CM<sup>2</sup>

## **ABERE-PROBAK, GIZON-PROBAK**

Atal honetan, ondorengo diziplinen araudiak barneratzen dira:

ASTO-PROBAK, IDI-PROBAK, ZALDI-PROBAK

GIZON-PROBAK (Gizon-probak erabiltzean ez da inolako sexu-bereizkeriarik egiten, orain arte bederen, apustu hori gizonezkoen artean besterik ez baita jokatzeko).

### **JOKOAREN OINARRIA**

Horretarako egin diren harriak, tarrasean ahalik eta urrutien eraman behar dira joko honetan. Arrastean, animaliak zein gizakiak ari daitezke.

### **BALDINTZA OROKORRAK**

1.art.- Probak, horretarako eraikitako probalekuetan egingo dira.

2.art.- Proba hastean, harriaren atzeko aldeak probaleku orok izan behar duen zinta edo erdiko marka estali behar du.

Eraman beharreko harriek zulo bat izango dute aurreko aldean, katea pasatzeko eta ziria jartzeko.

3.art.- Probalariek plaza (iltzea) egin dutela ulertuko dugu, harriaren aurreko aldeak irteera gunearen beste aldean dagoen marka edo lerroa zapaltzen duenean.

4.art.- Harria ezin izango da probalekuko alboetako marketatik pasa.

5.art.- Harriaren alde bertikaletako bat alboetako marretatik aterako balitz, "ustela" gertatuko litzateke. Hau gertatzen denean, probalariek atzera egin beharko dute, harria bere osotasunean atera den gunetik baino atzerago egon arte.

Ez da exijituko baldintza hau, harriaren aurreko aldea probaleku bukaerako markara iritsi bada.

6.art.- Proba bukaera Epaileak neurtuko du, harriaren aurreko aldean urrutien dagoen zatia kontuan hartuz.

Kasu berezietan (hondarra galtzea, eta halakoak), Epaileak ezarriko du aurrera eraman beharreko irizpidea.

Proba bukatutakoan, epailea ustela adierazten ari bada, marka leku horri dagokiola ulertuko dugu, harria non dagoen ez dio axolarik.

7.art.- Proba guztietan Plazako epaileak hartuko du parte. Plazako Epailea federazioko kide izango da.

8.art.- Plazako Epaileari dagokio:

- Animaliak pisatzerakoan, bertan izatea eta izan daitezkeen arazoak konpontzea.

- Animaliak pisatu ondoren eta Epaileak kronometroa martxan jartzen duenean, ordezkatzetik edo aldaketarik ez gertatzeko neurriak hartzea.

- Lehia aldatu edo biziarteko duen produkturik ez duela ikuskatzea.

- Kriseilua aurretik pasatzea.

- Plaza garbi dagoela ikuskatzea.

- Txapelketa hasi alde aurretik erabiliko den harria garraiatzeko agintzea, baita ere Epaileak plazan zerbait arraroa sumatuko balu.

- Probak burutu bitartean, iltzeak noiz bete diren berak esango du, baita proba bukaerako neurketa ere.

9.art.- Ezin izango dira animaliak zakar ziztatu, ezta kolpatu ere. Kolpeak moduz eman beharko dira, Epailearen irizpidea jarraituz. Ez bada horrela egiten, probalariari abisu bat emango zaio. Berriz ere gauza bera eginez gero, kanporatua geldituko da.

Asto probetan edo zaldi probetan, ezin izango da animalia ziztatu, ezta akuilua ez den beste zernahi gauzarekin jo.

10.art.- Lehiaketa berean ezin izango dute parte hartu aurrez parte hartu duten animaliek, nahi eta beste jabe baten izenean aurkeztu.

### **PROBETAKO MATERIALARI DAGOZKION ARAU OROKORRAK**

11.art.- Plaza edo iltzea erabat bete ez bada, distantzia horiek horrela neurtuko dira:

a) Plaza edo iltze hasieratik gurutzaturiko zintak kontatuko dira eta egindako azken zintaren erdialdetik Plazako Epaileak esandako lekura dagoen distantzia neurtuko da. Lana plaza, zinta eta metrotan emango da.

b) Plazako lan partziala neurtzeko, beharrezkoa izango da plaza berri bati ekiten hasia izatea, eta harriaren aurreko aldeak zinta gurutzatua izatea jada.

c) Berdinketa emango balitz, titulua, garaikurrak, lehenengo aritu denarentzat izango dira. Dirutan emandako saria banatu egingo dute, baita puntuazioa ere, balego.

d) Sariketa edo lehiaketetan izena emateko orduan, animalien jabearen federazio txartela aurkeztu beharko da. Ez bada



ondoren probara aurkeztuko, animaliak gaixo daudelako edo lesionatuak daudelako, albaitariaren egiaztagiria aurkeztu beharko du. Ez badu hala egiten, diziplina espedientea irekiko zaio.

12.art.- Probak iraun bitartean, erlojari-erakusle baten laguntza onartuko da, akulariei aholkuak emateko: erritmoari buruz, harria nondik eramatea komeni den, eta abar... Erakusle hauek partaideak anima ditzakete, baina ezin izango dituzte keinuak eta mugimenduak egin, animalien arreta eskuratzeko. Erakusleei aurrez esango zaie ze plaza burutan jarri behar duten, eta ezin izango dira bertatik mugitu harik eta proba bukatu arte.

Giza probetan, salbuespen gisa, erlojari-erakusle arituko dena, probalarien ondoan ibili ahal izango da.

13.art.- Kronometratzaile edo erlojari-erakusleak ezin izango dute apusturik egin. Hala eginez gero, federazioaren zigorra jaso dezakete.

14.art.- Animaliak pisatu behar izanez gero, proba pisu jakin bateko animaliek egiten duten kasuetan, Plazako Epailea edo honen ordezkaria bertan egon beharko dira.

15.art.- Gainkargak, bestelakorik esaten ez den bitartean, horrela kalkulatu dira:

Abelgorriak: Animalien pisuari aurrez jarritako pisua kenduko zaio, eta diferentzia, egotekotan, 1,5 koefizientearekin biderkatuko da.

Zamariak (asto eta zaldiak): Animalien pisuari, aurrez jarritako pisua kenduko zaio, eta diferentzia, egotekotan, 1 koefizientearekin biderkatuko da.

16.art.- Gainkarga hauek harri gainean jarriko dira eta derrigorrez harriek dituzten heldulekuen barnetik.

17.art.- Gainkargak, normalean hondar-zakuak dira. 100 kiloko zakuak jarriko dira, eta ehun kilotara iristen ez diren zatikiak, beste zaku baten. Bestelako gainkargak ere erabil daitezke, burdinazko edo berunezko plantxak, eta abar....

18.art.- Harria plazatik aterez gero, berriz tiraka hasi aurretik, irteera marka gainean une batez gelditu egin beharko da.

19.art.- Bigarren lekuan aritzen denak, aurkariaren lana egin ezin badu ere, behartua dago lanean normaltasunez eta kiroltasunez aritzera eta lan osoa bukatzera. Epaileak lehiakortasunik eza ikusten badu, proba baliogabetu ahal du. Desafioetan, epaileari eta ikusleei proba hasi aurretik esanez gero, hitzartutako denbora bukatu aurretik aurkariaren marka egiten badu, proba gelditu ahal izango du.

20.art.-Ez bada kontrakoa adierazten, probak 30 minutukoak izango dira.

21.art.- Lehiaketako parte hartzaile guztiak egingo dute lan aurrez jarritako denbora tartean. Horrela, baita azken parte hartzaileak ere, lehiaketa horretan ezarritako marka gainditu badu ere, kiroltasunez aritu beharko du denbora bukatu arte. Ez badu horrela egiten, proba baliorik gabe geldituko da.

22.art.- Jarduna bukatutakoan, parte hartzaileek harria irteera puntura edo Plazako Epaileak adierazitako lekura eraman beharko dute. Lan hau aritu diren akuilariak egingo dute, eta lagun gehiago beharko balira, Plazako Epaileak izendatuko ditu.

23.art.- Probalekuek, probak iraun bitartean, zainduak egon beharko dira. Baita proba hasi aurretik ere, inork ez dezan plazara gai berezirik, kasu, xaboia, gantza, burdin hautsa, eta abar.... bota. Honelako irregultasunak ematen badira, antolatzaileek izango dira erantzuleak, epailea ez dagoen bitartean.

24.art.- Probak gauez egiten badira, argi artifiziala erabiliz, antolatzaileek beste argi sistemaren bat prest izan beharko dute, argindarrak kale eginez gero erabili ahal izateko.

25.art.- Probetan, garbiketa talde bat bertan egon beharko da, animalian gorotza batzeko. Plazara gorotzik eroriz gero, behar bezala garbituko dute, Plazako Epailearen agindupean.

26.art.- Animaliak plazan mantarik eta zakurik gabe sartuko dira. Gurtaga eta barak jarriak dituztela. Ez ordea asto eta zaldiak, hauei barak edo nardaia plaza barruan jarri ahal izango zaizkie.

Animalia arriskutsuak badira, begiak estalita eraman ahal izango dituzte. Sudurzuloetan segurtasunezko suteztana ere eraman dezakete, baita hankaren bat soka batekin lotua ere. Baina segurtasun sistema guzti hauek proba hasi aurretik kendu beharko zaizkie animaliei.

27.art.- Plazako Epaileak animalien laginak jasotzea agindu dezake, proban zehar zerbait arraroa sumatuko balu. Honengatik, diziplina espedientea ireki daiteke.

28.art.- Plazako Epaileak lana ongi betetzeko laguntza behar duela ulertzen badu, laguntzailea izenda dezake.

29.art.- Proban zehar akuilariaren batek istripua badu, edo Plazako Epaileak kanporatu egiten badu, bere lagunak bakarrik jarraituko du lanean. Animalia edo animaliak akuilariak gabe geldituko balira, uztarturiko animaliak edo animaliek ordura arte egindako lana 30 minututan egin dutela ulertuko dugu.

30.art.- Era berean, animalietako batek kolperen bat jasoz gero, ezin badu tiraka jarraitu, animalia horrek edo animalia horiek ordura arte egindako lana 30 minututan egin dutela ulertuko dugu.

31.art.- Orokorrean, probetan, parte hartzaile batetik besterako denbora tartea, 15 minutukoa izango da, harria irteera puntuan dagoen momentutik kontatzen hasita.

Zerbait hautsiz gero, eta ezin bada 15 minutuan konpondu, proba bertan behera utziko da.

Hausteko unean kirolaria lanean ari bada, berak hala nahi badu, hautsi arteko marka baliagarria izango da. Osterantzean, epaileak atsedenaldia eskainiko dio eta berriz ere hasieratik hasi beharko du proba.

### **ABELGORRI PROBAK**

32.art.- Animalia uztarri bakarrean arituz gero, bara lauak eraman beharko ditu. Esan nahi baita, ezin izango zaiela barei ongi heltzeko ezer jarri.

33.art.- Matxura gertatu dela ulertuko dugu, uztarria, gurtaga edo barak, girgiluak eta katea hausten badira. Hauek konpontzeko, 10 minutuko denbora tartea erabili ahal izango da. Denbora tarte horretatik gora, nahiz eta konpontzeke gauza bat baino gehiago izan, probako denborak aurrera egiten duela ulertuko dugu.

34.art.- Matxurak konpontzeko lanabesak edo ordezeko piezak, federazioko mahaiaren ondoan utzi beharko dira.

35.art.- Honetaz gainera, parte hartzaileek nahi eta nahi ez utzi beharko dituzte federazioko mahaiaren ondoan ordezeko uztarria eta lau akuilu. Antolatzaileek, era berean, ordezeko gurtaga edo barak eta katea utzi beharko dituzte. Tresnotakoren bat hautsi bezain laster, ordezeko beste bat utzi beharko da, inola ere ez dadin tresnarik falta.

36.art.- Matxurak akuilariak konponduko dituzte. Hori bai, idi pareka egindako probetan, uztarria hausten bada batez ere, hiru lagunak aritu ahal izango dira konpontzen. Beraz, bi akuilari ari badira, erlojari-erakuslea ere aritu ahal izango da eta erlojari-erakuslerik ez zanean idien jabea edo uztargilea aritu ahal izango da.

37.art.- Uztarri motzeko probetan, matxuraren bat gertatuz gero, bi lagun aritu beharko dira matxura konpontzen. Plazako Epaileak konpontze lanetan jende gehiago aritzeari komenigarri baderitzo, animalietako bat arriskutsua delako edo beste arrazoiren batengatik, aurrez ezarritako jende kopurua baino gehiagok laguntzea baimendu ahal izango da.

38.art.- Animaliei buru aldean heldulekuak jarri ahal izango zaizkie, 30 zentimetro ateratzen ez diren bitartean.

39.art.- Akuilariak ezin izango dute kakorik edo halako beste tresnarik erabili, ez bada gainkargari heltzeko harriak daraman sokarekin egindakoa eta ez bada heldulekuetatik kanpora ateratzen.

40.art.- Akuilariak gogokoen dituzten akuiluak erabiliko dituzte, baina eztena ezin izango da 11 milimetro baino handiagoa izan.

### **ASTO PROBAK ETA ZALDI PROBAK**

41.art.- Asto probetan eta Zaldi probetan, barei heldulekuak jarri ahal izango zaizkie, 20 zentimetro ateratzen ez diren bitartean. Edozein eratar, baretako alde bakoitzean helduleku bakarra jarri ahal izango da.

42.art.- Halako probetan, akuilariak kako finkoak erabili ahal izango dituzte, baina ez artikulatuak.

43.art.- Matxura kasuetarako, zildaia edo lepokoa, baina uhalik gabe; girgiluak; barak edo kateak eta harria bastarekin lotzen duen katea. Konpontzeko, gehienez ere 10 minutu erabili ahal izango dituzte.

44.art.- Antolatzaileen lana da parte hartzaileen esku jartzea nardaia, kateekin edo barekin. Parte hartzailearen batek bere basta erabiliko balu, eta basta hautsiz gero, ez genduke ulertuko matxura gertatu dela.

45.art.- Animalien jardunean gertatzen diren matxura kasuetan, bi lagun beharko dira matxura konpontzeko. Plazako Epaileak uste badu konponketa lanetan lagun gehiagok hartu behar dutela parte, animalia arriskutsua delako edo beste arrazoiren batengatik, aurrez ezarritako jende kopurua baino gehiagok laguntzea baimendu ahal izango da.

### **GIZON-PROBAK**

46.art.- Gizon-probetan aritzen direnek, era honetan egin beharko diete tira harriak:

a) akuilariak abelgorri probetan egiten duten bezala, harriak dituzten heldulekuetatik bultzatuz edo tiratuz, bestelako tresnarik erabili gabe.

b) Proba guztietan jartzen den ziria duen katetik tiratuz.

47.art.- (b) atalean esandakoa egiten dutenean, parte hartzaileek katea, kakoa eta gerrikoa erabili ahal izango dute, bestelako ezer erantsi gabe.

48.art.- Proban bi lagunak edo gehiagok hartzen dutenean parte, antolatzaileek nardaia jarri beharko dute.

49.art.- Parte hartzaileek galtzerdiak, espartinak, bota arruntak, zapatak, ... eta abar erabili ahal izango dituzte, baina zolan bestelako ezer erantsi gabe.

50.art.- Gizon-probetan erlojari-erakuslea, proba lagunaren ondoan joan ahal izango da, plazako ertz batean gelditu beharrean. Bere lana aholkua ematea izango da. Galarazita izango du edozein laguntza mota ematea. Probak iraun bitartean, ezin izango ditu parte hartzaileak ukitu, ezta harria ere. Arau honi kasurik egiten ez dion lehengo aldian, kargu hartuko zaio, eta bigarren batean ere ez badio kasurik egiten, plazatik kanporatua ahal izango da.

51.art.- Gerrikoa hausten bada, dela zertxobait dela erabat, eta honek proba aurrera eramatea galarazten badu, botileroak probalariei gerrikoa aldatzen lagundu ahal izango die.

52.art.- Gizon-probetako probalari orok katea, gerrikoa eta kakoa erabili ahal izango du. Hauek Plazako Epaileak azertu egingo ditu, eta erabili ahal izateko ontzat jo beharko ditu.

53.art.- Parte hartzaileek ezin izango dituzte plazara bota, ahoa bustitzeko erabilitako edariak.

54.art.- Gizon-probetan ulertuko dugu matxura gertatu dela: nardaia eta girgiluak hausten direnean, partaide bi edo gehiago daudenean; katea hausten denean, partaide bakar bat dagoenean eta bakarrik nardaia edo katea antolatzaileek ekarritakoak direnean. Gehienez 10 minutu erabiliko dira konponketak egiteko.

## **SEGA**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Aurrez jarritako denbora tarte batean, eta sega erabiliz, ahalik eta belar kilo gehien moztu behar dira joko honetan.

### **BELARDIAREN EZAUGARRIA**

1.art.- Belardiak belar aski izan beharko du lehiaketak aurrez jarritako denbora tartean iraun ahal izateko.

2.art.- Belardia alorretan sailkatuko da eta alor bakoitza ze alor-multzori dagokion adieraziko da.

Alor-multzoak ahalik eta antzekoenak izatea izango dugu helburu, bai orografiari dagokionez, bai belarraren ezaugarriei dagokienez.

3.art.- Sega probetan moztu beharreko belardi saila, honako eskala honen arabera izango da:

Ekitaldiko minutu bakoitzean moztu behar den gutxieneko belardi saila:

Belar gutxi dagoenean eta aise mozten denean 38,5 metro karratu

Belarra behar bezala dagoenean eta ez dagoenean berebiziko zailtasunik 33 metro karratu

Belarra ugaria denean eta mozteko zailtasunik ematen dituzenean 27,5 metro karratu

### **SEGAREN EZAUGARRIAK**

4.art.- Segalariak, lehiaketan, honako sega kopuru hau erabil dezakete:

30 minutu arteko lanetan 3 sega

60 minutu arteko lanetan 3 sega

90 minutu arteko lanetan 4 sega

120 minutu arteko lanetan 5 sega

5.art.- Probaldian zehar, segaren batek alanbreren bat, harriren bat, edo horrelako zerbait jo eta ahoa kaltetuz gero, sega konpondu egingo da, matxura gertatu aurretik zegoen egoerara itzultzeko asmoz.

Honetarako, kirolari bakoitzak lagun bat izango du. Lagun hau mailaren bukaeran egon beharko da, eta matxura konpontzeko, ingudea, mailua eta zorroztarria eraman ahal izango ditu, baita edariak ere.

6.art.- Segaren kirtena hautsiko balitz, beste kirten bat jartzeko aukera izango luke kirolariak, baita uztaia eta txabeta ere.

### **LEHIAKETA BERA**

7.art.- Proba hasi baino ordu erdi arinago, belardi multzoak zozketatu egingo dira.

8.art.- Epaileek zozketa hasi aurretik adieraziko dute zein ordenatan moztu behar diren alorrak.

Behin alor batetik bestera pasatu ondoren, segalaria ezin izango da aurreko alorrera itzuli. Era berean, segalariak ezin izango du aurrez moztu duen eremura ere itzuli.

Alor bakoitzeko belarra norabide eta norantza berean moztu beharko du segalariak. Beraz, ilara bateko lana bukatu ondoren, berriz ere hasierako lekura itzuli beharko du, hurrengo ilararekin hasteko.

Kasu berezietan, belarra etzanda edo nahastua badago segalariak saila ebakitzen hasi den norabidea aldatu lezake horrela iruditzen bazaio. Hala ere behin bakarrik izango du aukera; hau da norabidea batean hasi eta beste batean jarraitzen badu azken norabide horretan bukatu beharko du saila. Dena den proba hasi aurretik segalari eta epaileen artean erabaki beharko dute aukera hori.

Belarra gaizki ebakitzen ari bada lehenengo abisua emango zaio segalariari gaizki ebakitzen ari dela esanez. Gaizki ebakitzen jarraitzen badu txartel urdiña aterako zaio eta gaizki ebakitzen jarraitu ezker txartel gorria. Txartel gorria ateratzearekin 20 kilo kenduko zaizkio.

Behin txartel gorria aterata hemendik aurrera segalariari gaizki ebakitzeko txartel urdiña aterako zaio zuzenean eta ondoren berriro gaizki ebakitzeko txartel gorria; honen ondorioz beste 20 kilo kenduz.

Seigarren txartel gorria ateratzean segalaria kanporatua izango da (egindako lana ez zaio kontuan hartuko).

15 metroko maila batean maila muga 5 motots edo mordoxka ebakitzeko gelditzen badira, epaileak segalariari abisua emango dio.

Txingurri pillak edo sator lurra denean sega altuagotik pasa dezake eta hor gelditzen den belarrangatik ez da santzionatuko. Bestalde ezinezkoa izango du dena utzi eta aurrera salto egin sega golperik eman gabe.

9.art.- Belarra biltzeko eta pisatzeko, segalari bakoitzak seiko taldea eramango du belardira. Hauek tresneri hau eramango dute: 3 eskuare, porteria, baskula eta sareak.

Badaezpada beste eskuare bat eduki ahal izango da eta Epaileak baimena eman gero, erabili ere bai.

10.art.- Belar biltzaileak lanean hasiko dira proba hasi eta handik hamar -10- minutura. Lana, proba bukatu eta handik hamar -10- minutura bukatuko dute edo arinago, belar gutzia bildua badute eta fardoak jada eginak.

11.art.- Belarra pisatzen, proba hasi eta handik hamar -10- minutura hasiko dira. Lana, proba bukatu eta hogeitabi -20- minutura bukatuko dute.

Azken hamar -10- minutuak sareen gainean jarrita dagoen belarra pisatzeko izango dira eta eskuare bakarri erabili ahal izango da sareen azpiko belar hondarrak biltzeko.

12.art.- Epeok bukatu ondoren, oraindik ere belarra biltzeko balego, edo fardoak pisatzeko, lan hauetako arduradunen arduragabekeria medio, belar hori ez dela moztu ulertuko da.

Epaileen ustez, ezinbestean gertatu bada hau, aurreko artikuluetan aipatutako epeak luza ditzakete.

13.art.- Talde bakoitzak erabiliko dituen eskuareak, hortz zilindrikodunak eta zorrotzak izango dira. Hortz bakoitzaren artean hamar -10- zentimetroko distantzia beharko da. Alde guztiek erabiliko dituzten eskuareak berdintsuak izan beharko dute, sei puntetakoak. Belarra nahi bezala bil dezakete eskuareekin, beti ere, ez badituzte hortzak lurrean sartzen eta ez badute belarra korapilatzen, apurtu asmoz. Oraindik ere mozteko belarra badagoen lekuetan, ezin izango dute eskuarea bi norabidetan erabili eta belarra alor batetik beste batera ezin izango dute eraman.

Eskoarezaleek belarra bakarka bildu beharko dute, hau da eskuareak gurutzatu gabe (eskoarea bat bestearen atzean). Eskoareak gurutzatzen badituzte lehenengo abisua emango zaie eta bigarren abisuan eskoarezalea bere eskoarearekin belarditik kaleratua izango da.

14.art.- Belarra pisatzea, era honetan kontrolatuko da:

a) Epailea izango da pisatzearen arduraduna.

b) Epailearekin batera, tokatu zaion beste taldeko ikuskatzailea egongo da.

15.art.- Pisatutako belar fardoak pilatu egingo dira eta gainean zenbakidun ezaugarri bat jarriko zaie, fardo bera bi aldiz ez pisatzea saihesteko.

16.art.- Antolatzaileek, gutxienez, parte hartzaile bakoitzeko erromatar balantza bat eta pisatzeko beste tresna bat ekarri beharko dituzte, eta ordeko pieza bezala, pisatzeko beste tresna bat edo beste erromatar balantza bat. Pisatzeko tresna edo erromatar balantza hauek frogatu egingo dira alorren zozketa egin aurretik.

17.art.- Pisatzeko emandako denboraren erdia joan ondoren, parte hartzaileek erromatar balantzak edo pisatzeko tresnak trukatu dituzte euren artean.

18.art.- Zelaian, lanen bat duten lagunak baino ezin izango dira egon. Hauei, Herri Kirolen Federakundeak txartel berezi bat emango die.

Bakoitza, bere lana bukatu ondoren, zelaitik atera beharko da. Horrela, segalariak eta laguntzaileak segatzeari utzi bezain pronto utzi beharko dute zelaia, eta lanabesak Epaileak esandako lekuan utzi beharko dituzte.

19.art.- Probaldian zehar, laguntzaile, biltzaile edo pisatzailearen batek epaileen aginduak bete ezean, kanporatua izan daiteke, eta inor ezin izango da ordezkatzera sartu.

20.art.- Segalariak laguntzailea eraman dezake, segak zorrotzeko, hauek batetik bestera eramateko eta botilero lanak egiteko.

Laguntzaileak ezin izango du belar lanetan aritu.

21.art.- Laguntzaileak aholkuak eman ditzake baina ezin izango dio segalariari fisikoki lagundu.

## **AZKEN XEDAPENA**

22.art.- Joko honek ezaugarri bereziengatik, eguraldiak edo belardiaren egoerak hala adierazten badute, Epaileek arau hauek alda ditzakete, salbuespen gisa.

23.art.- Guzti hau arautzeko belardian 3 edo 4 segalari direnean 2 epaile zentral ibiliko dira. Segalari gehiago izango balira 3 epaile zentral egongo dira.

**EUSKADIKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA:**

Deialdia egin ondoren, izena ematen duten segalariak taldeetan banatuko dira, aurreko urteko finalerdietako eta finaleko emaitzen arabera. Talde bakoitzeko kanporaketa bat egingo da.

Lau taldekin lehia (izena ematen duten segalarien arabera egokituko da):

Talde bakoitzeko kanporaketan, kilo gehiago ebakitzen duten segalari biak, Finalerdietarako sailkatuko dira.

Finalerdi bakoitzean 4 segalarik ebakiko dute.

Finalerdi bakoitzetik 2 segalari sailkatuko dira Finalerako.

Kanporaketetan sailkatutako 8 segalariak finalerdi bietarako banantzeko era:

<b>A Taldea</b>	<b>B Taldea</b>	<b>C Taldea</b>	<b>D Taldea</b>
<u>Lehena</u>	<u>Lehena</u>	<u>Lehena</u>	<u>Lehena</u>
<u>Bigarrena</u>	<u>Bigarrena</u>	<u>Bigarrena</u>	<u>Bigarrena</u>

**Beltxean:** Finalerdi baten ebakiko duten segalariak

Azpimarratuta: Beste finalerdian ebakiko dutenak

**Belarra ebakitzeko denbora:**

Kanporaketetan eta Finalerdietan: 30 minutu

Finalean: 60 minutu

## **TXINGA-EROATEA**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Joko honetan bi txinga, bana eskuko, denbora mugarik gabe, ahalik eta distantzia luzeenean eraman behar dira.

### **ARAUAK**

1.art.- Iltzearen edo plazaren neurria, 28 metrotakoa izateko ahaleginak egingo dira.

2.art.- Txinga bakoitzak 50 kilogramo izango du, +- kilo erdiko tolerantziarekin (0,5 k). Txingak langintza honetarako bereziki egindakoak izan daitezke, burdinurtua edo burdin trinkozko totxoa. Salbuespen gisa, arestian aipatutako neurrietatik kanpoko txingak onar daitezke.

3.art.- Txingak zilindrikoak izan beharko dute, 30 zentimetrotakoak +-5 cm; diametroa, 16,30 zentimetrotakoa +- 2 cm; heldulekuak 5,50 zentimetro +- 1 cm. izan beharko ditu, 22 milimetrotako lodiera +- 2 mm eta laua izan beharko da.

4.art.- Parte hartzaileak bereak diren txingekin hartu nahiko balu parte, hala egin dezake, beti ere txingok arauzko neurriak betetzen badituzte eta antolatzaileen esku utzi beharko ditu zozketa aurretik, egiaztatu ahal izateko. Hala nahiko balute, txinga hauek gainontzeko parte hartzaileendako ere eskura geldituko lirateke.

5.art.- Lehiaketan txingek izan beharreko pisuak honako hauek dira:

Gazteak: 35 k

Emakumeak: 25 k

Senior: 50 k

3. Artikuluan aipatu ditugun tolerantziekin.

25 kiloko txingak zilindrikoak edo laukizuzenak izango dira. Laukizuzenen neurriak: altuera 35 cm +-5 cm; oinarriaren aldeak 9,5 cm +- 2 cm; heldulekua: altuera 6,50 cm +- 1 cm., lodiera 22 mm +- 2 mm eta laua izango da.

6.art.- Lehiaketetan zozketa egingo da, parte hartzaileen ordena ezartzeko.

7.art.- Arau orokorra izango da, aurrekoak bukatu eta hurrengoa hasi bitartean hiru minutuz goitiko tarterik ez izatea.

8.art.- "Prest" esandakoan, kirolaria lanean hasteko prestatuko da, eskuak txingetan dituela. Txilibitua jotzean, lanean hasiko da.

9.art.- Iltze edo plaza bakoitza bukatzean, oinetako batekin bederen, azken zintako marra zapaldu beharko du.

10.art.- Parte hartzaileek hobekien irizten dioten pausuan arituko dira lanean. Lehiaketan zehar gelditu ahal izango dira, hala nahi badute, baina txingak eskuetatik zintzilik izan beharko dituzte beti ere.

11.art.- Txingetako bat edo biak gorputzeko atalen batean jartzea debekatua geldituko da eta hala egiten duena, kanporatua geldituko da.

12.art.- Neurketa kirolariak erortzen utzitako edo kirolariari eroritako lehenbiziko txingak utzitako markara arte egingo da. Neurtzeko, marka horretan aurreratuen dagoen aldea hartuko dugu kontuan.

13.art.- Kirolariak txingak aurrerantz botatzen baditu edo bueltaka uzten baditu, lan hori ez dugu baliozkotzat joko eta kanporatua geldituko da.

14.art.- Behin ekitaldia bukatu eta gero, antolatzaileen lana izango da txingak irteera puntuan jartzea.

15.art.- Lehiaketetan, parte hartzaileek antolatzaileek utzitako txingak edo beraiek ekarritakoak erabiliko dituzte. Hautsiz gero edo lehenbizikoak falta izanez gero, antolatzaileek beste txinga pare bat utzi beharko dute parte hartzailearen esku.

16.art.- Lehiakideek, eskuak garbi izan beharko dituzte, inongo produkturik gabe. Tranpa nabaria eman ez gero, partehartzailea kanporatua izango da aurrez ohartarazi gabe.

## **ONTZI-ERAMATEA**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Joko honetan bi ontzi, lurrik ukitu gabe ahalik eta bide luzeenean eraman behar da.

### **ONTZIEN EZAUGARRIAK**

1.art.- Ontzi bakoitzak 41 kilo izango ditu.

2.art.- Ontziek 20 litroko bolumena izango dute.

### **ARAUAK**

3.art.- Ibilbidea 80 metroko laukizuzen bat izango da edo txingetarako erabiltzen den berdina.

4.art.- Probak ez du denbora mugarik izango.

5.art.- Proba zozketa bidez eratuko da.

6.art.- Parte hartzaileek ez dute eskuetan inolako produkturik erabiliko. Parte hartzailearen batek iruzurra nabarmen eginez gero, kanporatua izango da, aurrez abisurik eman gabe.

7.art.- Ontzi pare guztiak epaileei aurkeztu beharko zaizkie, proba hasi aurretik, horrela epaileek ontziok egiaztatzeko aukera izan dezaten.

8.art.- Probaren hasteko agindua epaileak emango du.

9.art.- Ontzi pare eskuetatik zintzilik egon beharko da beti, ezin izango da gorputzeko beste atalen batean sostengatu. Sostengatzeak, kanporatzea ekarriko luke.

10.art.- Jokalariaren ekitaldiaren neurketa, lurra jo duen lehenengo ontziaren hasieran egingo da.

11.art.- Behin ekitaldia bukatu eta gero, antolakuntzakoek, irteera puntura eramango dituzte ontziok.



## **INGUDE JASOTZEA**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Burdinazko ingudea altuera jakin batera, ahalik eta aldi gehienetan altxatzean datza joko hau.

### **INGUDEAREN ETA LANABESEN EZAUGARRIAK**

1.art.- Lehiaketetarako ingudeak, 18 kilo izan beharko ditu. Puntatik oinarrira 320 mm-ko altuera izango du (+- 20), eta 600 mm-ko luzera (+-20). Heldulekuak lauak izango dira, 40 mm-ko diametrokoak (+-2). Gutxienezko luzera, 160 milimetrokoa izango da. Emakumezkoen lehiaketetan, ingudeak 10 kiloko pisua izango du. Heldulekuak gomazko estalkia edukiko dute, baina esandako diametroa ez dute gaindituko inolaz ere.

2.art.- Ingudea jotzeko oinarria, goiko txaparen paralelo jarri beharko da, elondo egurrezko laukizuzen trinko bat izango da, eta 1.000 mm-ko luzera x 200 mm-ko zabalera (+-20 mm) izan beharko du. Altuera totala 200 mm-ko (+-20 mm) izan beharko du. Zutoina eta oinarriaren muturraren arteko distantzia 1.000 mm-koa (+ - 50 mm) izango da. Oinarriaren goiko aldea, 500 mm-ko luzera x 200 mm-ko zabalera x 10 mm-ko lodiera izango duen "U" formako altzairu arruntez egindako xafla batez estalita egongo da.

3.art.- Goiko xafla, bisera deitua, 500 mm-ko gutxienezko luzera x 400 mm-ko zabalera (+- 10 mm) duen txapa laukizuzena izango da. Honen eta kirolariaren buruaren arteko distantzia 30 zentimetrotakoa izango da. Zutoina eta biseraren muturraren arteko distantzia 1000 mm-koa (+ - 50 mm) izango da.

4.art.- Kirolariak norbait beharko balu plataformari heltzeko, hau epailearen agindupean arituko litzateke.

### **ARAUAK**

5.art.- Ekitaldia 1,30 minututakoa izango da, gizonen zein emakumeen txapelketetan. Berdinketa balitz, lehenengo aritu dena izango litzateke irabazle.

6.art.- Altxaldia baliozkotzat jotzeko, ingudeak bai oinarria, bai goiko xafla jo beharko ditu. Altxaldia ontzat goiko xafla jo ondoren emango da.

7.art.- Kirolariaren eskuak garbi egon beharko dira, bestelako produkturik gabe.

8.art.- Kirolariak laguntzaile bat erabili ahal izango du. Honek ezin izango du Epailaren lana trabatu, ezta kirolaria ukitu, ezta materiala ere, ekitaldiak iraun bitartean.

9.art.- Ingudea edo egitura bera hautsiko balira, beste bat ekarri beharko litzateke. Ekitaldia berriz ere hasiko litzateke atsedenaldira baten ondoren, Epaileak ongi irizten dionean.

## **ORGA JOKO**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Joko honetan, atzeko aldetik hartuz eta gurpilek lurra jo gabe, orgari birak eman behar zaizkio. Gurtaga lurreko puntu jakin batean izango du lotua orgak.

### **ORGAREN ETA LANABESEN EZAUGARRIAK**

- 1.art.- Orgaren egitura egurrezkoa izango da.
- 2.art.- Orgaren luzera: orga 4 metro 50 zentimetro luze izango da (+-5 cm), aurreko kontzatic kirolariaren besoek orga ukitzen duten punturaino.
- 3.art.- Gurtaga kontza gainean jarriko da, gutxienez 70 cm x 70 cm-koa izango den xafla baten gainean.
- 4.art.- Kontza gurtagaren muturrean jarriko da.
- 5.art.- Kontzaren altuera: 15 zentimetro egin behar ditu gora, (+- 2 cm), lurretik hasita egurraren beheko aldera.
- 6.art.- Orgaren altuera: Orgak 90 cm-ko altuera izango du (+ - 5 cm), lurretik hasita kirolariaren besoek orga ukitzen duten punturaino.
- 7.art.- Orgaren pisua: Orgak, pisu gainean dagoela, kontzan sostengatua (atzeko aldea haga baten gainean), 200 kilo izan behar ditu (haga salbu).
- 8.art.- Orgak arestian aipaturikoa baino gutxiago pisatuz gero, gain-pisua jarriko zaio, arauzko pisura hel dadin.
- 9.art.- Gain-pisu hau, kirolariaren besoek orga ukitzen duten puntutik gutxienez 50 zentimetrora jarriko da.
- 10.art.- Orgari heldulekuetatik helduko zaio. Orga besoetan eta bularrean bermatu ahal izango da, baina inoiz ez sorbaldan.
- 11.art.- Heldulekuak mugikorrek izango dira eta kirolari bakoitzari komeni zaion neurrira egokituko dira.
- 12.art.- Kirolariak besoak eta bularra babes ditzake, beti ere babesgarri honekin ez badu orga erortzea saihesten. Eskuek ez dute babesik izango, eta garbi izan beharko ditu, inolako produkturik gabe.
- 13.art.- Kirolariak nahi duen norabidea aukera dezake, erlojuaren orratzena, edo kontrakoa.
- 14.art.- Kirolariak bi elkarren segidako ekitaldi egiteko aukera du. Ekitaldi bat ontzat jotzeko, jokalaria gutxienez zirkunferentzia laurdena egin beharko du.
- 15.art.- Ez dago denbora mugarik proba hau egiteko.
- 16.art.- Zerbait hautsiz gero, eta ezin bada 15 minutuan konpondu, proba bertan behera utziko da.
- 17.art.- Hausteko unean kirolaria lanean ari bada, berak hala nahi bada, hautsi arteko marka baliagarria izango da. Osterantzean, epaileak atsedenaldea eskainiko dio eta berriz ere hasieratik hasi beharko du proba.
- 18.art.- Kirolariak laguntzaile bat eraman dezake probara.
- 19.art.- Laguntzaileak ezin izango du ez orga ezta kirolaria ere ukitu.
- 20.art.- Egindako bidea, orgaren atzeko barneko aldetik neurtuko da.
- 21.art.- Kontza dagoen plataforma gainean, Epaileak adierazitako lagun bat edo bi egon daitezke.

## **LASTO JASOTZEA**

1.art. .- Lehiaketetarako fardoak edo antzekoak 45 kilo izan beharko ditu. Hauek izan beharko dira neurriak

	Gutxienekoa	Gehienekoa
Altuera	50 cm	60 cm
Luzera	80 cm	90 cm
Zabalera	45 cm	55 cm

2.art. .- Sokak, korapiloaren goiko aldetik hasita, 7 metroko bidea egiteko eran jarriko da polea (+- 15 cm). Polearen kanpoaldeko diametroa 300 mm-koa izango da gehienez eta barnealdekoa 200 mm-koa gutxienez.

3.art.- Sokaren gutxieneko diametroa 30 mm-koa izango da eta gehienezkoa 35 mm-koa. Kirolari bakoitzak bere soka eroan eta aldatu ahal izango du. Parte-hartzaile guztiek tripode berean arituko dira.

## **ARAUAK**

4.art. .- Kirolariak ekitaldia bi hankak lurrian dituela hasiko du.

5.art. .- Ekitaldiaren denbora ofiziala 2 minutukoa izango da. Denboraz kanpo, kirolariak beste altxaldi bat egingo du, berdinketa gertatuz gero erabili ahal izateko. Altxaldi honetako denbora ere neurtuko da.

Marka, bi minutuan egindako altxaldiek adieraziko dute.

6.art. .- Kirolariak, fardoak erortzean hartuko duen abiadura balia dezake berori altxatzeko.

7.art. .- Kirolariaren oinak ezin izango dira polearen perpendikularreko 3 metroko erradiotik atera

8.art. .- Altxaldi bat baliozkoa izan dadin, fardoak lurra jo beharko du, eta sokaren korapiloak polea. Altxaldia baliozkoa izango da korapiloak polea jotzerakoan.

9.art. .- Soka eskuetatik libre pasatuko da. Eskuok garbi egon beharko dira eta kirolariak ezin izango du gorputzeko beste atalik erabili.

10.art. .- Polearen euskarria zurruna izan beharko da, polea ez dadin balantzaka hasi (ez goitik behera, ez ezker-eskuin).

11.art. .- Emakumeen lehiaketetan, fardoak edo antzekoak 30 kiloko pisua izan beharko du. Polea, 5 metroko bidea egiteko eran jarri beharko da. Ekitaldiaren denbora ofiziala 2 minututakoa izango da.

## **LASTO BOTATZEA**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Joko honetan, fardoa, sarde baten laguntzarekin, barra horizontal baten gaintetik pasatu behar da.

### **MATERIALAREN EZAUGARRIAK**

- 1.art.- Fardoak 12 eta 13 kilo arteko pisua izango du. Fardoa estu lotua eta enbalatua egongo da, ez dadin barreia.
- 2.art.- Sardearen luzera osoa ez da 1,80 zentimetro baino handiagoa izango. Lehiakide bakoitzak bere sardea erabil dezake, edo bestela antolatzaileek eskainitakoa.
- 3.art.- Barra horizontala horrela altxatuko da:  
30 zentimetroka, hasi 3.40 metrotik 4 metroko altuera arte.  
20 zentimetroka, hasi 4 metrotik 5 metroko altuera arte.  
10 zentimetroka, 5 metroz goiti.

### **ARAUAK**

- 4.art.- Zozketaz erabakiko da zein ordenatan arituko diren lanean lehiakideak.
- 5.art.- Lehiaketa hasteko gutxienezko altuera, antolatzaileek ezarriko dute, aurrez kontsultatu ondoren. Parte hartzaile bakoitzak "maila" (altuera) guztiak pasatu beharko ditu.
- 6.art.- Parte hartzaile bakoitzak, saiakera bat egin ondoren, bigarren saiakera egin ahal izateko, gainontzeko parte hartzaileek beraiena egin arte itxaron beharko du.
- 7.art.- Altuera bakoitzean hiru saiakera egin ahal izango dira. Kale eginez gero, parte hartzailea kanporatua geldituko da.
- 8.art.-Altuera bakoitzean ere, zozketaz erabakiko da zein ordenatan arituko diren lanean lehiakideak.
- 9.art.- Proba, altuera handiena lortu duenak irabaziko du.
- 10.art.- Berdinketa emanez gero, saioa hasi denetik, saiakera gutxien eginez altuera gehien lortu duenak irabaziko du.
- 11.art.- Erabili beharreko materiala lehiaketan zehar honda daitekeenez, lehiaketa bakoitzeko bi sarde eta bi fardo beharko dira.
- 12.art.- Sei edo kirolari gehiagok izena ematen badute, bi egitura jarriko dira.

## **BARRENARIEN KIROL ARAUDIA**

### **OHARRA**

Giltzen arteko erreferentziak {Art. 0} eta letra etzanarekin idatziak, zigorren artikulua adierazteko dira.

Kortxete arteko erreferentziak [Art. 0] eta letra normalarekin idatziak, euren artean lotura duten artikulua adierazteko dira.

## **BARRENARIEN ARAUDIA**

### **TXAPELKETAREN OINARRIAK**

Harri baten gainean ahalik eta barrena-zulo gehien egitea, sakonera zehatz batekoak, horretarako barrena erabilia, denbora-epe batez.

### **BARRENA**

Harri batean zuloak egiteko erabiliko da lantza metalikoa, aurrerantzean barrena izendatuko dena, ondorengo ezaugarrien arabera:

1. Art.- Bere luzera 1,90m. eta 2,10m artekoa izan beharko da.
2. Art.- Barrenaren puntak gehienez hamahiru (13) zentimetroko luzera izango du.
3. Art.- Zuloak egiteko ahoaren zabalera hogeita hamalau (34) eta berrogei (40) milimetro artekoa izan beharko da.
4. Art.- Barrenaren diametroa hogeita zortzi (28) eta hogeita hamar (30) milimetro artekoa izan beharko da  $\pm 0,2$ mm-ko errore marjinarekin.
5. Art.- Debekatuta dago barrena trokela, zintekin biltzea edo itsasgarria eranstea, etab. Barrenak esparatrapu itsasgarriaren hondarrak ekar litzake, horiek jakinaren gainean jarri direnean izan ezik.
6. Art.- Barrenaren pisua ez da finkoa izango, horien luzera eta diametroa erabakigarriak izanik.

### **BARRENA-ZULOAK**

Barrena-zuloak kontsideratuko dira, harrian eginiko zulo guztiak, ondorengo ezaugarriak kontuan hartuta:

7. Art.- Egin beharreko barrena-zuloaren sakonera proba bakoitzaren aurretik finkatuko da, eta oro har hamahiru (13) zentimetrokoa izaten da.
8. Art.- Barrena-zuloak aurretiaz mugatu gunearen barruan egin beharko dira. Hiru ilara zulatuko dira, nahi den hurrenkeran eta amaitzean, laugarren ilararekin hasi behar da. Salbuespenak epaileak erabakiko ditu.
9. Art.- Finkatu sakonera betetzen duen barrena-zulo oro, epaileak onartzen duenean, taponatu egingo da eta ez da berriro neurtuko.
10. Art.- Proba amaitzean, taponatu gabeko barrena-zuloak egiaztatu egingo dira eta sakonera handieneko hura soilik kontatuko da. Halaber harri pitzaduragatik osatu gabeko barrena-zuloak neurtuko dira. Neurketa bietako emaitzaren zentimetroak amaiera emaitza lortzeko erabili barrena-zuloen kopuruari erantsiko zaizkio.

### **PARTAIDEAK**

Probata bertaratzen den kirolari oro partaidetzat hartuko da.

Ondorengo arauak bete beharko dituzte:

### **LEHENENGO ATALA**

#### **PARTAIDE OROREN INGURUKOA**

11. Art.- Partaideak taldeka bilduko dira.
12. Art.- Partaide bakoitzak taldean betetzen duen funtzioaren arabera ondorengo mailak ezartzen dira:
  - a.- Barrenariak
  - b.- Botileroa
  - c.- Laguntzailea
  - d.- Epailea

13. Art.- Taldeak eratu ahal dira bat (1), bi (2) edo hiru (3) barrenariekin, botilero batekin eta epaile batekin, txapelketa motaren arabera. Aukeran laguntzaile bat izango dute eskuragarri, nahi dutenean.

14. Art.- Talderen batek proba bakoitzerako eskatzen den partaide kopuru zuzenarekin kontatuko ez balu, ezin izango luke txapelketan parte hartu.

15. Art.- Barrenariak eta botileroak hala nola laguntzaileak (balego) uniformetasun egokia aurkeztu beharko dute proba bakoitzean. Ezinbestekoa da talde bakoitzeko kideek kolore berdineko kamisetak eramatea eta komenigarria oinetako egokiaren erabilera. Halaber gomendatzen da botileroak babes betaurrekoak erabiltzea.

## **BIGARREN ATALA**

### **BARRENARIEN INGURUKOA**

16. Art.- Barrenaria kontsideratuko da partaide oro zeinen funtzioa harria barrenarekin kolpatzea izango den.

17. Art.- Barrenariak proban zehar ezin izango dira epailearengana zuzendu.

18. Art.- Barrenari bakoitza inoren laguntzarik gabe igoko da harrira.

19. Art.- Proban zehar barrenari bat lesionatzen denean, ezin izango da hura ordeztu.

20. Art.- Barrenariak eskuak babestu ahal izango dituzte, soilik takoekin eta esparatrapuarekin hala nola takoarekin eta esparatrapuarekin bildutako kotoizko eskularruekin. Euren eskuak soilik erabili ahal izango dituzte –aipatu babesekin-barrena heltzeko; debekatuta dago horretarako inolako zapirik, egunkaririk edo antzeko materialik erabiltzea. Azken horiek erabili ahal izango dira barrena lehertzeko, erabilia izaten ari ez denean.

### **HIRUGARREN ATALA**

#### **BOTILEROAREN INGURUKOA**

21. Art.- Botileroa arduratuko da barrena igotzeaz. Hura eutsi eta libratzen lagundu dezake, baina ezin izango du harria harekin kolpatu.

22. Art.- Botileroak soilik isuri dezake ura harriaren gainean barrena-zuloak garbitzeko eta barrena hozteko. Halaber hauspoa edo antzeko baliabide bat erabili ahal du putz egiteko.

23. Art.- Botileroa da taldeko kide bakarra epailearengana zuzendu ahal dena. Epailea informatuko du proban zehar taldean sor litezkeen gertakarien inguruan eta barrena-zuloak neurtzeko eskatuko du.

24. Art.- Botileroak probaren garapenean zehar neurgailu propioa erabili ahal izango du barrena-zuloen neurria egiaztatzeko, neurketa hau erreferentziazkoa soilik izanik.

25. Art.- Botileroak agintea izango du epaileari eskatzeko neurgailua une horretan neurtzen ari den barrena-zuloaren gainean finko eta geldirik uzteko, zehaztasun handiagoarekin egiaztatzeko barrena-zuloa onargarria den edo ez, dagokion epean, betiere bai epailea eta bai neurgailua kolperik jasateko arriskuan ez daudenean, epaileak soilik ukitu ahal izango du bere neurgailua.

26. Art.- Epailearen eta botileroaren neurketen artean desadostasuna dagoenean, azken honek barrena-zuloa taponatu ahal izango du eta behartu zuloa berriro neurtzera, bestela proba amaitzean ebazpena hutsik geratuko da.

27. Art.- Esleitu taldeko epaileak dagokion harriari arreta eskainiko ez balio, botileroa erdiguneko epailearengana zuzendu ahal izango litzateke erreklamazioa aurkeztera.

28. Art.- Proba amaitzean, botileroa erdiguneko epaileen eta taldeko epailearen alboan mantenduko da amaiera neurketa egin bitartean.

### **LAUGARREN ATALA**

#### **EPAILEEN INGURUKOA**

29. Art.- Epailaren zeregina banatuta dago, bere funtzioen arabera, bi modutan, hau da, Erdiguneko Epailea eta Talde Epaileak.

30. Art.- Erdiguneko epailearen zeregina da:

a.- Beharrezko dokumentazioa prestatzea, probaren aurretik (aktak, fitxak, etab.)

b.- Talde bakoitzak zulatu beharko duen harriaren zozketa egitea; hala nola harri bakoitzaz arduratzea dagokion talde epailearen zozketa egitea.

c.- Proba abiaraztea eta amaitzea, organizazioak aurretiaz ezartzen duen orduan.

d.- Kirolarien egoera egiaztatzea eta bere kasuan horietako baten partaidetza debekatzea, mozkorkeria sintomak antzematen direnean edota partaidearen egoera naturala aldarazten duen edonolako substantziaren eraginpean aurkitzen direnean. Kiroltasunaren kontrako portaerak debekatzea.

e.- Araudia urratzen duen partaide edo talde oro zigortzea.

f.- Proba abiarazi aurretik harri bakoitzaren egoera egiaztatzea eta talde bakoitzari harriaren zein gune zehatz zulatu beharko den adieraztea. Erabaki hau errespetatu egin behar da.

g.- Talde bakoitzak erabiliko dituen barrenen ezaugarriak aztertzea eta onartzea.

h.- Pitzaduraren kasuan, harri aldaketarako baimena ematea, kontuan hartuta:

i.- Pitzadura mota

ii.- Egonkortasun eza

iii.- Zulatzen jarraitzeko tarte erabilgarria

i.- Ilaratik kanpo zulatzeko baimena ematea.

j.- Proba amaitzean talde bakoitzak

eginiko zulo kopurua egiaztatzea,

talde epaileekin eta botileroarekin batera,

zeinen taldea harri hori zulatzeaz arduratuko zen.

31. Art.- Talde epailearen funtzioak izango dira

a.- Esleitu zaion harriari arreta jartzea eta ez dagokion taldeko harriari.

b.- Barrena-zuloak neurtzea eta egiaztatzea, botileroak hala eskatzen dionean.

c.- Barrena-zuloa amaitutzat ematea, eta taponatzea. Barrena-zuloa taponatu denean, ez da berriro neurtuko. Epailearen errore marjina  $\pm 2\text{mm}$ -koa da.

d.- Erdiguneko epaileari probaren garapenean zehar gerta litekeen edonolako gertakariren berri ematea.

e.- Erdiguneko epaileak probaren amaiera adierazi duenean harria kolpatua izaten ez dela egiaztatzea.

f.- Dagokion harrian eginiko barrena-zuloen kopuru osoa egiaztatzea, taldeko gainerako epaileekin, harri horren botileroarekin eta erdiguneko epailearekin batera.

## **TXAPELKETAREN GARAPENA**

### **LEHENENGO ATALA**

#### **PROBA ARAUEN INGURUKOA**

32. Art.- Probaren iraupena hogeï (20) edo hogeïta hamar (30) minutukoa izan ahal da, txapelketa motaren arabera; garaile aldarrikatuko da denbora epe horretan barrena-zulo gehien egitea lortzen duen taldea, edo bestela barrena-zulo kopuru finkoa ezarriko da eta proba amaitutzat emango da talderen batek ezarri marka lortzen duenean, garaile aldarrikatuz esleitu barrena-zuloak egitea lortzen duen lehenengo taldea.

33. Art.- Erabat debekatuta daude erretzea, alkoholduen edariak kontsumitzea, kirolaren kontrako portaerak, eraso fisikoa edo ahozkoa partaideengana zein ikusleriarengana zuzendua, probaren aurretik eta ondoren, esparru horretan.

### **BIGARREN ATALA**

#### **MATERIAL ERABILIEN INGURUKOA**

34. Art.- Guztientzat harri berdinak erabiliko dira, kaliza erakoak edo antzeko gogortasunekoak.

35. Art.- Proba abiarazi aurretik, talde epaileek erabili dituzten neurgailuak egiaztatuko dira, guztiek araudiko neurriak bete ditzaten. Proba amaitzean, beste behin ere neurgailua neurtzeko aukera emango da.

36. Art.- Proban zehar erabiliko diren barrena guztiak, proba hasi aurretik neurtuko dira.

37. Art.- Proban talde bakoitzeko erabili ahal izango den barrena kopuru handiena bostekoa (5) izango da.

### **HIRUGARREN ATALA**

#### **PROBAREN GARAPEN OROKORRAREN INGURUKOA**

38. Art.- Harri bakoitzaren alboan talde epailea ezarriko da.

39. Art.- Botileroa eta laguntzaile bat soilik mantendu ahal izango dira barrenarien alboan. Laguntzailea ezin izango da hurbildu metro batera harriaren inguruan, eta gune hori eskusiboki barrenarientzat eta botileroarentzat erreserbatuko da hala nola talde epailearentzat, haren presentzia eskatzen denean.

40. Art.- Ahal den neurrian, talde epailearen zeregina erraztuko da, zuloen neurketak egiterakoan. Neurtu beharreko barrena-zuloa une horretan zulaketa egiten ari den gunetik hurbilegi aurkitzen denean, epaileak beharrezko itxaronaldia egin beharko du bere segurtasuna bermatzeko. Taldeen ardura da onartu beharreko zulotik hurbilegi ez zulatzeko ahalegina egitea.

41. Art.- Erdiguneko epaileak probaren amaiera adierazten duenean, berehala utziko zaio zulatzeari. Talde epailea izango da hori betearazteaz arduratuko dena.

42. Art.- Probaren amaieran, lorturiko barrena-zuloen amaiera neurketa egitean, harri horren botileroa, talde epailea eta erdiguneko epailea soilik mantendu ahal izango dira bere inguruan, eta bertatik urrundu egingo dira barrenariak eta laguntzailea.

## ERREKLAMAZIOAK

Neurketa mekanismoaren inguruan desadostasunak sortu ahal dira epaileen eta botileroen artean, barrena-zulo onartuen eta harriaren bestelako faktoreen inguruan. Hori gertatzen denean, ondorengo artikulua hartuko dira kontuan erreklamazioa egiteko orduan:

43. Art.- Desadostasuna dagoenean botileroaren eta talde epailearen artean, erdiguneko epaileak barrena-zuloaren onargarritasuna egiaztatuko du.

44. Art.- Beste edonolako erreklamazioa egin ahal izango da erdiguneko epailearen aurrean proba amaitu denetik ondorengo hamar (10) minututan.

45. Art.- Bestelako erreklamazio guztiak erdiguneko epaileari aurkeztu ahal izango zaizkio zazpi (7) egun naturalen epean, erreklamazio hori dagokion ospakizunaren lehenengo egunetik aurrera kontatuta.

### I. ERANSKINA– ZIGOR-BALDINTZAK

Partaide guztiak araudi honekiko kiroltasun eta errespetu portaera erakustea espero da, dagozkion artikulua jarraituz eta arau-haustearen kasuan euren ardura onartuz. Aurrekoa betetzen dela ziurtatzeko, ondorengo zigor baldintzak ezartzen dira:

46. Art.- Araudia erabat edo partzialki ez ezagutzeak ez du salbuesten bere konplimendua.

47. Art.- Zigorak aplikatuko dira, arau-haustea asmo txarrik eta dolu asmorik gabe egin izan arren.

48. Art.- Bere aplikazioa orokorra eta berdina izango da kirolari eta talde guztientzat. Barrenaren behin-betiko kanporaketaren zigorak Federazioak inposatuko ditu.

49. Art.- Proba zigorrek suposatzen dute horrela zigortua izan den kirolariak edo taldeak ezin izango duela txapelketan parte hartu, dagokion proba kopurua eta horien hurrenkera zigorren taulan xedatua izanik.

50. Art.- Lau (4) zigor mota ezartzen dira.

[30.-e. Art.-], Larritasun maila, txikienetik handienara antolatuta:

a.- Ohartarazpena:

i.- Bi (2) ohartarazpenek hutsegite arin bat (1) suposatzen dute.

ii.- Metagarriak izango dira txapelketa berdinen barruan.

b.- Hutsegite arina:

i.- Bi (2) hutsegite arinek, hutsegite larri bat (1) suposatzen dute.

ii.- Metagarriak izango dira proba batetik bestera.

c.- Hutsegite larria:

i.- Bi (2) hutsegite larriek, hutsegite oso larri bat (1) suposatzen dute.

d.- Hutsegite oso larria Federazioari aurkeztuko zaio.

51. Art.- Talde bat hutsegite larriagatik zigortua izan denean, eta ondorioz sailkapen nagusian postua jaisten zaionean, gainerako taldeek euren posizioa mantendu egingo dute, posturik igo gabe.

52. Art.- Berdinketaren kasuan, posizioa mantendu egingo da, sailkapenean posturik igo gabe.

### ZIGORREN TAULA

	BANAKAKOA	TALDEKOA
<b>ARINA</b>	Proba zigor bat (1)	Probaren dieta galtzen du
<b>LARRIA</b>	Hiru (3) proba zigor	Hiru (3) postu galduko ditu sailkapenean, bere aurrekoak baino milimetro bat (1) gutxiagorekin
<b>OSO LARRIA</b>	Txapelketatik kanporatzea ( <i>Federazioak egiaztatuko du zigorra</i> )	Bost (5) puntu galtzen ditu



## II. ERANSKINA – ZIGORREN APLIKAZIOA

Jarraian, egungo araudiaren arabera ezarri zigorrak azaltzen dira.

### OHARTARAZPENAK

**53. Art.- Edozein partaide**, ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [33. Art.-] Erretzen duenari.
- b.- [42. Art.-] Amaiera neurketan hurbiltzen denari.

**54. Art.- Talde osoa**, ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [39. Art.-] Gune erreserbatuan kide gehiago daudenean.
- b.- [41. Art.-] Jadanik proba amaitu ondoren harria kolpatzen denean.

**55. Art.- Barrenariak**, ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [17. Art.-] Epailearengana zuzentzen denari.
- b.- [20. Art.-] Abarrena araudiaren arabera heltzen ez duenari.

**56. Art.- Botileroak**, ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [21. Art.-] Harria kolpatzeko barrena erabiltzen duenean.

**57. Art.- Talde epaileak**, ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [25. Art.-] Neurgailua finkatuta eta geldirik uzten ez duenean.

### HUTSEGITE ARINAK

**58. Art.- Talde osoa**, ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [5. Art.-] Barrenaren legez kanpoko erabilera egitean.
- b.- [15. Art.-] Araudiaren arabera ez janztean.
- c.- [30.-f. Art.-] Epailearen erabakia errespetatzen ez denean.
- d.- [31.-c. Art.-] (Epailearena) taponatu ondoren berriro neurtzen duenean.
- e.- [43. Art.-] (Botileroarena) taponatu ondoren berriro neurtzen duenean.

**59. Art.- Talde epailea**, ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [31.-a. Art.-] Esleitu harriari arreta ez jartzean.

### HUTSEGITE LARRIAK

**60. Art.- Talde osoa** (epailearena), ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [35. Art.-] Neurgailu erabiliaren neurriak desegokia izaten direnean.

### HUTSEGITE OSO LARRIAK

**61. Art.- Talde osoa**, ondorengo arau-hausteen kasuan:

- a.- [19. Art.-] Barrenari lesionatua ordeztzean.
- b.- [36. Art.-] Onartua izan ez den barrena erabiltzean.

### GAINERAKO XEDAPENAK

62. Art.- Barrena erretiratu egingo da, hogeita hamaseigarren artikularen [36. Art.-] arabera, konfiskatua izanik proba amaitu arte, kontuan hartuta ondoren xedatua:

- a.- [1. Art.-] Barrenaren luzera desegokia izatea.
- b.- [2. Art.-] Barrenaren punta desegokia izatea.
- c.- [3. Art.-] Barrenaren ahoa desegokia izatea.
- d.- [4. Art.-] Barrenaren diametroa desegokia izatea.
- e.- [5. Art.-] Itsasgarria, trokelak, etab. daramatzanean.

63. Art.- Aurreko artikuluari jarraiki, proban zehar onartu gabeko barrenaren bat erabiliko balitz, lorturiko marka ez litzateke kontabilizatuko eta talde arduraduna proba horretatik kanporatu egingo litzateke.

[36. Art.-]

64. Art.- Zortzigarren artikularen [8. Art.-] arabera, ilara-muga gainditzen denean aurreko ilarak amaitu izan gabe eta epailearen baimenik gabe, muga horretatik kanpo eginiko barrena-zuloak ez dira kontatuko.

65. Art.- Desadostasunaren kasuan, berrogeita hirugarren artikuluan [43. Art.-] xedatuari jarraiki, desadostasun hori jadanik ebatzi denean, oker legokeen taldeari zigorra egotziko litzaioke ohartarazpen batekin. Erreklamazioak idatziz egingo dira.

## **LOKOTX-BILTZEA**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Ilaran eta batetik bestera 1,25 metroko tartera dauden lokotxak, saski batean ahalik eta lasterren sartu behar dira joko honetan.

### **ARAUAK**

1.art.- Plazako alde batean, parte hartzaile bakoitzeko saski bat jarriko da. Saski guztiak berdinak izan beharko dira, neurri honetakoak: 40-50 zentimetro diametroan eta 40-50 zentimetroko altuera.

Saskiak jartzerakoan 2 metroko gutxieneko tartea utziko da haien artean eta gutxienez 1,5 metroko tartea kanpoaldeko saskien eta lehia tokiaren mugaren artean. Tarte biak saskien erdigune geometrikotik neurtuko dira.

2.art.- Lokotxen (makiltxoek) neurriak honakoak izango dira: 14-20 zentimetroko luzera. Biribilak badira, diametroa 2,5-3 zentimetro artekoa izango da. Karratuak badira, alde bakoitzak 2,5-3 zentimetro izango ditu.

3.art.- Lehenengo lokotxa saskitik 1,25 metrotara jarriko da. Bigarrena, lehenengotik 1,25era, eta horrela behin da berriz, 25 lokotxetaraino.

4.art.- Ekitaldia 50 lokotxetako bada, lokotx bakarria jarri beharrean bi jarriko dira. 75ekoa bada, hiru jarriko dira. 100ekoa bada, 4.

5.art. .- Parte hartzaileek lokotx guztiak banan-banan sartuko beharko dituzte saskian. Ezin izango dira lokotx berri bat hartzera abiatu aurrekoa saskian sartu ez bada.

6.art.- Nahigabe, parte hartzailearen batek, aurreko lokotxa sartu gabe, berri bat saskira ekarriz gero, Epailleak zigorra jarriko dio: sartu ez duen lokotxa lehen zegoen lekutik 1,25 metrotara jarriko du.

7.art.- Lokotxak nahi den ordenan jaso ahal izango ditu kirolariak.

8.art.- Emakumezkoen lehiaketak, 50 lokotxetakoak izango dira.

## **ZAKU-ERAMATEA**

### **JOKOAREN OINARRIA**

Joko honetan zaku bat lepo gainean eta distantzia jakin batean, ahalik eta lasterren eraman behar da.

### **MATERIALAREN EZAUGARRIAK**

1.art.- Zakuak 80 kilo izango ditu (+ - 1 k), artoz, gariz edo antzeko zerbaitez beteak. Emakumezkoen lehiaketetan zakuak 40 kiloko pisua izango du.

2.art.- Zakuari bolumena edukiak emango dio, bestelako amarrurik gabe. Heltzeko, zakuari puntak soka baten bidez lotu ahal izango zaizkio.

### **ARAUAK**

3.art.- Ekitaldia 120 metro luze izango da, lerro zuzenean. Antolaketa errazteko, zati ezberdinak izan ditzake: 2 x 60 metro, edo 4 x 30 metro.

4.art.- Ekitaldia hasterakoan, zakua hartzeko laguntza erabili ahal izango da.

5.art.- Errelebutako lasterketaren kasuan, zakua lerrotik kanpo pasatuko diote elkarri.

6.art.- Lasterketan zehar zakua eroriz gero:

- banakako lasterketa: kirolariak berak altxatuko du zakua laguntzarik gabe.

- Errelebutako lasterketa: errelebuko lagunek lagundu ahal izango diote.

7.art.- Ekitaldia bukatzeko, bai kirolariak bai zakuak pasatu beharko dute helmuga.

8.art.- Zakua lepo gainean hautsiz gero, talde horri ekitaldia berriz hasteko aukera emango zaio. Zakua erori delako hausten bada, kanporatua geldituko da.

9.art.- Kaleak markatuak egongo dira. Kirolari bat beste baten kalera pasatzen bada, eta aurkariak oreka galtzea eragiten badu horrekin, kalez aldatu dena kanporatua izango da. Kaleraturiko taldeak beste ekitaldi batean hartu ahal izango du parte.

